

# TOKIKOM karkara

**Orioko eta Aiako aldizkaria**  
2011ko abenduaren 23a  
308. zenbakia. 23. urtea

## Eliza zaharberrituta

Kanpotik eta barrutik berritu dute Orioko eliza.  
Hilabete batzuk pasa eta gero, argitasuna da  
nagusi Bariko San Nikolas parrokian

**05**

**Orioko kontuak**  
Arau subsidiarioak

**10**

**Aiako elkarrizketa**  
Leire Ibareguren

**21**

**Adarretatik helduta**  
Arraun klubeko  
zuzendari ohiak

**24**

**Kritika**  
Danborjole txikia

# GABONAK 2011



## ABENDUAK 17, LARUNBATA

- 10:00 Bigarren eskuko gauzen azoka. Ikastola aurrean.  
10:30 Jostatu erabilien azoka Herriko Plazan. Herriko aldeak antolatuta. 10:30etik 13:30era eta 15:30etik 18:00etara.  
12:00 Ibai Espainen ipuin kontaketa plazan. Arkupearen egunaren barnean.  
16:00 Lur Usabiagaren ipuin kontaketa interaktiboa plazan. Arkupearen egunaren barnean.  
17:00 Txokolatada plazan, Arkupearen egunaren barnean.  
17:30 Zarpantzarrik kalez kale. Arkupearen egunaren barnean.

## ABENDUAK 21, ASTEAZKENA

- 17:30 Danboin musika eskolaren kontzertua elizan; talerako ikasleak eta instrumentuko ikasle txikiak.  
20:00 Salako abesbatzaren eta musika eskolaren Gabonetako kontzertua elizan. Salako ondoan izango da Danboineko soka taldea, kantuko ikasleak eta musika mintzairako 2, 3 eta 4. mailako taldeak.

## ABENDUAK 23, OSTIRALA

- 17:00 - 20:00 Argiztapen autogeneratua eta parte-hartzailea. 2-6 eta 6-13 urte bitarteko haurrentzat 6 bizikleta jarriko dira plazan. Bizikleta horiek sortzen duten energiarekin plazako bi zuhaitz argiztatuko dira. Haur eta gurasoei dei egiten zaie bizikletan ibili eta argiak pizten laguntzera joateko.  
19:00 Erregeen kabalatarako izen-ematea ikastolako pergoian. Danboin eta laguntzaleen zerbaita esatuko da.  
22:00 Herriko 7 kiroldegian. Parte-hartzaileak. Errikotela, Danboin, Tala Mendik, gaztelua eta Kukulu batukada taldeak Herriko dentza taldeak antolatuta.

## ABENDUAK 24, LARUNBATA

- 10:45 Haurrak kalez kaleko saioa. Ikastolako, eskolako, Danboin Musika Eskolako haur, talerako eta gurasoak kantari antuko dira kalez kale. Ikastola ondoko plazan hasita.  
11:00 Tonbala plazan, ikastolako DBIko ikasleak antolatuta.  
17:00 Orentzeroren eta Mari Domingiren etorria. Arkupe, Txurruaruzki, Orioko Herri Ikastola eta Zaragueta Eskolek antolatuta.

## ABENDUAK 26, ASTELEHENA

- 16:00 Realeko nesken entrenamendua egingo dute Mendibeltz zelain. Orioko taldeko jokalariek ere bertan izango dira.  
17:00 Rudi Iremi azkarrak filma Kultur Etxean.

## ABENDUAK 27, ASTEARTEA

- 17:00 Hartz mañagarriak filma Kultur Etxean.

## ABENDUAK 28, ASTEAZKENA

- 17:00 Palko filma Kultur Etxean.  
19:00 Filmi laburren maratona Kultur Etxean: Maizten Sarasuaren Homeno nagia, Kiki Aburaren Arzabide, Mozur produktzioak-en Bizitzeko kosta.

## ABENDUAK 29, OSTEGUNA

- 19:00 Motondon buruzko hitzaldia Kultur Etxean. Aranzadi Zientzia Elkarteak Botanika sailko Lore Orija-biologoak eskainia. Ondoren, Motondoko argazkien erakusketa zabalduko da Kultur Etxean. Herriko taldeak antolatuta du erakusketa eta urtarilaren amaiera arte izango da kursat.

## ABENDUAK 30, OSTIRALA

- 10:00-13:00 Argiztapen autogeneratua eta parte-hartzailea. 2-6 eta 6-13 urte bitarteko haurrentzat 6 bizikleta jarriko dira plazan. Bizikleta horiek sortzen duten energiarekin plazako bi zuhaitz argiztatuko dira. Haur eta gurasoei dei egiten zaie bizikletan ibili eta argiak pizten laguntzera joateko.  
17:00 Kantu, jantzi eta jartza lehiaketa ikastolako pergoian, Tala-Mendik antolatuta. Segidan, gaztairu-jana, ikastolako antolatuta.  
17:00 Hiru mosketariak filma Kultur Etxean.  
22:30 Anje Duhalderen kontzertua Karelan. Sarrera: 5 euro. Sarrerak salgai [www.banabana.eu](http://www.banabana.eu) helbidean. Lore eta Uranga burdindegietan, Karella kiroldegian eta egunean bertan lehiatzen.

## ABENDUAK 31, LARUNBATA

- 12:00 San Gilestre lasontza. Ikastola aurreko abiatuta. Izen ematea Karella Kiroldegian.

- 17:00 Mañagan amandrea filma Kultur Etxean.

## URTARRILAK 2, ASTELEHENA

- Egun osoz. Gabonetako haur parkea, Karella kiroldegian.

## URTARRILAK 3, ASTEARTEA

- 19:00 80 egunean filma Kultur Etxean.

## URTARRILAK 4, ASTEAZKENA

- 17:00 - 19:00 Haurrentzako mandala talerra Kultur Etxean, Mandalara taldeak antolatuta.

## URTARRILAK 5, OSTEGUNA

- 10:00-13:00 Argiztapen autogeneratua eta parte-hartzailea. 2-6 eta 6-13 urte bitarteko haurrentzat 6 bizikleta jarriko dira plazan. Bizikleta horiek sortzen duten energiarekin plazako bi zuhaitz argiztatuko dira. Haur eta gurasoei dei egiten zaie bizikletan ibili eta argiak pizten laguntzera joateko.

- 11:00 Erregeen karterua. Bizarzuri kalez kale ibiliko da gutunak jasotzen. Egoerdian plazara iritsiko da.

- 17:00 Erregeen kabalata, kalez kale. Tala-Mendik antolatuta, bukaera kiroldegian emango zara.

## URTARRILAK 7, LARUNBATA

- Goiz eta arratsaldez, paddle bateketa Muntoko kirolgunean. 16 urteko gorakentzat. Izen-ematea: Karelan, urtarilaren 4a baino lehen.

- 22:00 Pysit gaudel antzezlanaren ikastolako arrosa, Orioko Herri Ikastolako antolatuta. Sarrerak salgai, 5 eurotan, kiroldegian eta Lore eta Uranga burdindegietan.

## URTARRILAK 8, IGANDEA

- Goizez, paddle bateketa bukaera Muntoko kirolgunean. 16 urteko gorakentzat.

**OHARRA:** Kultur Etxea eta Iburutegia abenduaren 20tik urtarilaren 6era 9:00etatik 13:00etara itxiko dira eta arratsaldez itxia izango dira.



## Oriotik ere egin dezagun bidea!

# 308

## karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

**Kultur etxea,**  
**Eusko Gudari, 26**  
**20810 Orio**  
**943 831 527**  
**karkara@karkara.com**

**Editorea**  
 Karkara taldea  
 kultur elkarte

**Zuzendaria**  
 Ana G. de Txabarri

**Erredakzio burua**  
 Irati Agirreazaldegi

**Erredakzio taldea**  
 Pat Cowie,  
 Miren Etxeberria,  
 Iker Gurrutxaga, Eli Lasa  
 eta Jabier Zabaleta

**Publizitatea**  
 Pat Cowie

**Publizitatearen diseinua**  
 Lore Berasaluze  
 eta Iker Gurrutxaga

**Testuen zuzenketa**  
 Miren Etxeberria  
 eta Jabier Zabaleta

**Ale honetako laguntzaileak**  
 Arkupe Elkarte,  
 OAEko presidentea ohiak  
 eta Jokin Uranga

**Laguntzaileak**  
 Onintza Aiestaran  
 eta Iñaki Iturain

**Diseinua**  
 Danel Agirre Lertxundi

**Banatzaileak**  
 Cristina Burlacu  
 eta Iban Recio (Orio)  
 Eli Irureta (Aia)

**Inprimategia**  
 Gertu Koop. E. (Oñati)  
 Lege gordailua SS-346/90  
 ISSN 1132-1105  
 Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.

### 1

Etxeko atea bota du poliziak borra kolpez, batzuek lehenago egin zuten deserrira ihes, besteak kalabozora kartzelan urrundu aurrez, mina delako justizi eta mendekua juez. Etxean ta Euskal Herrian behar zuten jada legez, ez gara ari errukiaz, ari gara eskubideez, lehen ez zuten arrazoirik gaur aitzakirik ere ez!

### 2

Ikusteko gure lagun, adiskide ta etxeko zenbat bihurgune itxi eta zenbat kilometro? Curtis, Fleury ta Alacant hiru leku urruneko, batzuek bidea buruz dakite dagoeneko! Hau da momentua denok bolanteari heltzeko, bideari eutsi eta norabidez aldatzeko ta hemendik hara ordezk handik hona egiteko!



Orioko egin dezagun bidea taldearen aurkezpen egunean ateratako argazki jendetsua. KARKARA

### PUBLIZITATE PREZIOAK

#### Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

#### Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

**Publizitatea kontratatzeko**  
**Pat Cowierekin hitz egin**  
**(695 780 720) edo**  
**publizitatea@karkara.com**  
**Prezio hauei BEZa gehituko zaie**

### LAGUNTZAILEAK



**EUSKO JAURLARITZA**

Kultura Sailak diruz lagundutako hedabidea

## Udalak zuzen jokatu behar du

Arkupe Elkarteak askotan azaldu izan du, Muntoko zonaldeko futbol-softbol zelai azpiko aparkalekuen gaiari dago-kionez, irregulartasun batzuk antzeman dituela aurreko udalen kudeaketan. Kontuan izanik elkarteak eta bere partaideek Orioren garapena nahi dutela, askotan eskatu izan du aparkalekuak, oriotarren eta bisitarien onerako, publikoak izatea –ez nahitaez, doakoak–. Aparkaleku batzuk jartzea, beste aukerarik ez dagoenean, edozein herriren garapen komertzial eta turistikoaren parte izan behar duela iruditzen zaigu. Arau subsidiarioak –Muntoko Plana barnean hartzen dituztenak– 2008ko urriaren 15ean ezeztatu egin ziren Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiaren erabakiz, eta Orioko Udalak segituan Madrilgo Auzitegi Gorenean errekurritu zuen. 2011ko azaroaren 4an, ordea, Auzitegi Gorenak arrazoia eman dio Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiari eta, beraz, Orioko udal planeamenduko arau subsidiario horiek ezeztatuta geratu dira. Udal berriari zera eskatzen diogu: egoera argitzeko, eta kaltetuak xehetasunez informatzeko eta, hemendik aurrera, irregulartasunik ez egiteko. ■ **Arkupe Merkatarien Elkartea.**

## 729ko jostailurik ez Orion!

Gure herria, Orioko herria, 8 metroko altuera duen porlanezko harresi batez inguratua. Herritik sartu eta irteteko pasabide bakarra. Pasabidean, militarren postua. Haiek diote nor pasa eta nor ez. Ospitalea, unibertsitatea eta fabrikak harresiaren beste aldean. Osasuna, hezkuntza, lana... militarren esku. Haien baimenik gabe ezin medikua bisitatu, ezin eskolak jaso, ezin etxerako soldata ekarri. Ura ere ostu digute, ibaiaren ibilbidea aldatu dute eta lehorra dago. Base-rritarro! lurrak kendu dizkigute, eremu militar izendatu dituzte. Itsasora ere ezin atera, arrantzaleei tiro egiten diete lehorra daitezen. Langabezia %60ra igo da. Gure umeen %75ek anemia du. Preso gaude, ezin dugu herritik atera. Ezin ditugu inguruko herrietako lagun eta senideak ikusi. Haiek ere harresia dute. Gure ama, zuen ama... hain gertu eta ezin ikusi, ezin besarkatu. Esperantzak kendu nahi digute, pixkanaka-pixkanaka, isilean, herria hil nahi digute.

Historia beltza da Palestinako herriena. Horrela dauzka Israelek palestinarrik. Ez da fantasia, ez, benetako egia da. Munduko gobernu boteretsuak, euro-

parrak barne, zapalkuntza horren konplize dira. Israel zigortu ez, eta lagun moduan tratatzen dute.

Horren aurrean, palestinarrek hala eskatuta, 2005. urtetik Israeli boikot kanpaina internazionala martxan da. Orion ere badugu zer egin. Imaginarium, Toys R Us eta Afede dendetan Israelen egindako jostailuak saltzen dituzte. 729 barra kodeaz hasten dira. *Made in Israel* diote. Ez jolastu palestinarren sufrimenduarekin eta ez erosi. Israeli boikot! ■ **Joanes Fernandez Garate.**

## Jose Migel eta Luis: agur eta eskerrik asko!

Agur esatea erabaki dute, nahikoa dela. Datorren astelehenean, abenduaren 26an, egingo dute azken saioa, azken pala partidua Orioko frontoian. Luis eta Jose Migel dira, Mujika eta Manterola, Itxaspe eta Txaga, ezkerra eta eskuina, atzelari indartsu eta seguru eta aurrelari ausarta eta artista. Hirurogeita bosna urte dituzte eta adiskideak dira txikitatik. Arrantza izanak, badira urte batzuk ofizioari agur esan ziotela; baina afizioari, pilotan palaz jokatzeari, orain arte eutsi diote: astero-astero, astelehenean, fin asko ibili dira biak ere, ia inoiz huts egin gabe. 65 urte eta sasoiaren, 65 urte eta beti partidua irabazten saiatzen, afizio hutsez. Kirola praktikatzeko horrenbeste aldarrikatzen den gizartean, Luis eta Jose Migel bezalako kirolzaleak erodutzat jo beharko lirake. Zuekin jokatzen ibili garenontzat plazer bat izan da. Bejondeizuela! ■ **Clemente, Fulgentzio, Iñaki eta Makatza.**

## Zorionak denoi!

Badoa urte zaharra eta badator berria. Gu ere bagoaz eta besteak badatoz. Bizitza momentuak direnez, ez ditzagun aukerak alferrik galdu: jar gaitezen harremanetan urrutu dauzkagun adiskideekin, aspaldi ikusi ez ditugunekin, harremana kili-kolo dugunekin; bidali ditzagun bake eta maitasun mezuak; sortu ditzagun elkartasun eta zoriontasun tantak; bilatu ditzagun batasunerako topalekuak. ■ **Bixente Larrañaga.**

## Eskerrik asko!

Sanikolasak pasa berritan, antolaketan ondoan izan ditudan eskertzea tokatzen zait. Batetik, festa batzordeko kideak: dozena saltsera- saltsero, dozena eztabaida, dozena kezka eta dozena ideia

berri. Eta, nola ez, ekitaldien ardura hartu duzuen taldeak eta herritarrik. Proposamen dezente egin ditugu, jende askorengana joan gara, *egingo al duzu?* galdezka. Denak baietz, Luis Gozategi *Karrabalok* bezala. Ekitaldiak prestatzen jarri duzuen izerdia, ilusioa eta dedikazioa handia izan da. Zuen erantzunak herrigintzan sinisterra narama, inoiz baino gehiago. Ezin izen guztiak idatzi, baina ederki dakizue zeintzuk zarenen: zuentzako biba eta txaloak.

Horrez gain, txikizioak izan dira festetan. Ez da halakoak gertatzen diren lehen aldia, baina batzordeburu gisa ahalgina egingo dugu festara datorrenari arduraz jokatu behar duela adierazteko. Pasa gabe ondo pasa daitekeelako.

Beti izango da zer hobetua, orokorrean, plaza beteta ikusi dugu gau eta egun, herria kalean festaz gozatzen. Hori nahi genuen eta aurrerantzean ere horretan saiatuko gara. Ideia gehiago sortuko dira, herri bizia delako Orioko. Eskerrik asko! ■ **Jon Agirresarobe.**

## Pozioen eta herbiziden erabilera egokia

Udalak arautu egin du pozoien eta herbiziden erabilera egokia.

Arratzen kontrako pozoia erabiltzen duten herritarrentzat hamar arau: 1.- Pozoia haurrengandik urrutu gorde. 2.- Janari, edari eta pentsuetatik urrutu erabili. 3.- Eskularri egokiak erabili (iragazgaitzak). 4.- Erabili ondoren, eskuak ondo garbitu. 5.- Istripua gertatuz gero edota ondoeza izanez gero, joan medikuarengana eta erakutsi medikuari produktuen etiketa. 6.- Behar den tokian bakarrik erabili. Erabiltzaileak babestuta egon behar du, eta hurren edota animalieganandik urrutu erabili. 7.- Jendea ibiliko den tokietan erabiliz gero, produktua erabili dela adieraziko duten kartelak jarri. 8.- Euria egiten duenean, urarekin pozoiz poltsak mugitzea aukera saihesteko, poltsak zerbaiti lotuta utzi. 9.- Sobratutako pozoia jaso eta udalletxera bueltatuko da, hondakina behar bezala desegin ahal izateko. Berrito behar izanez gero, udaleko brigadari edo udaltzaingoari eskatu. 10.- Koagulazioaren aurkako pozoia denez, pertsonaren batek irentsiz gero, K bitamina hartu.

Udalak jakinarazi du, pozoia gaizki erabiltzen duten baserrietako eta txaboretako herritarrik direla pozoien erabilpen txarrak eragin ditzakeen kalteen erantzule. Udalak seinalizatu egingo ditu eremuak, herbizidak erabiltzen dituen bakoitzean. ■ **Amaia Dorronsoro.**

Obra eta zerbitzuetako batzordeburua

# Zaragueta eskolan DBHko ikasketak eskaintzeko asmoa aurrera doa

Hezkuntzako Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzatik jakinarazi dutenez, Aiako gurasoek beraien seme-alabek Zarautzera joaten jarraitzeko asmoa agertu arren, proiektuak aurrera egingo du.

Zaragueta Herri Eskolan derrigorrezko bigarren hezkuntzako -DBH- ikasketak egiteko aukera eskaintzeko eskaria egin zuten uztailean udalbatzarrean. Izan ere, orain, 12 urterekin herritik atera behar izaten dute ikasketak jarraitzeko eta ezinbestekotzat jo zuten sare publikoko ikasleek, herrian bertan, derrigorrezko hezkuntza osatu ahal izatea.

Horren harira, Zaraguetako zuzendari Juanjo Zubizarreta, Orioko alkate ohi Jon Redondo eta Aiako alkate Igor Iturain aurreko ikasturtean batzartu ziren Hezkuntza Saileko ordezkariekin. *Planteatu genuen ea posible zen eskola publikoa indartzeko Zaraguetan sei gela gehiago eraikiz 12-16 urte bitarteko ikasleentzat DBH zikloa abian jartzea, esan digu Hezkuntzako Gipuzkoako Lurralde Ordezkarari Julen Bengoetxeak.*

Honen esanetan, *hasierako baldintza izan zen Orio eta Aiako ikastetxe publiko-  
etako ikasleak Zaraguetara joatea DBH-  
ko ikasketak egitera. Orain dela hilabete,*

*ordea, Aiako gurasoei honen berri emateko bilera egin zuten. Harrezkerotik bozketa egin zuten eta %70ak erabaki du seme-alabak DBHko zikloa Zarautzen egiten segitzea. Lakuara berriz joan nintzen esanez Aiakoak ez daudela interesatuta eta, orain arte bezala, Zarautza joan nahi zutela, dio Bengoetxeak.*

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean, proiektua aztertu ondoren, onartu egin zuten. *Lakuako ordezkariei esan nien, nire ustez aurrera egin behar zela proiektuarekin eta onartu zuten; beraz, noiz ez dakigun arren, Orion DBH zikloa indarrean jarriko da, esan digu Julen Bengoetxeak. Bere asmoa da datorren ikasturterako martxan jartzea; horretarako, nahiz eta eraikin edo obrarekin ahalik eta azkarren hasiko garen, ez dakit 6 hilabetean posible izango ote den. Hala ez balitz, orain Zaraguetan dauden baliabideekin zenbait gelatan jarriko genituzke ikasleak eta, lanak bukatutakoan, eraikin berrira pasa.*

## Bilera

Zaraguetan DBH jartzearen gaiak eman zuten zer esanik uztaileko udalbatzarrean eta, besteak beste, obrei buruz hitz egin zuten. Zaragueta eskolak, mozio baten bidez, eskatu zuten DBH martxan jartzeko beharrezko obren gastuak kreditu aldaketa bitartez bideratzea eta Udalak obrak ordaintzea, eta ondoren diru laguntzak Hezkuntza Sailearekin adostea. Hala ere, Lurralde Ordezkaritzatik jakinarazi digute obrak udal laguntza programaren bitartez ordaintzea erabaki dutela. %40 Udalak ordainduko luke eta %60a Jaurlaritzak.

Abenduaren 23an elkartzekoak ziren udal ordezkariek eta Zaraguetako zuzendaria Hezkuntza Sailekoekin egin beharreko urratsei buruz hitz egiteko eta bakoitzari dagokiona zehazteko. *Trailaren bukaeran bilera bat egin genuen eta alkateak konpromisoa hartu zuten, baina gerora jakin du Aiakoek ez dutela Oriora etorri nahi; beraz, kontua gelditu dagoela uste dut, baina bileran erabakitakoaren arabera ez omen dute oztoporik jarriko, dio Julen Bengoetxeak.*

Aldaketarik ez bada, hortaz, aurrera doa Zaraguetan DBH jartzeko asmoa.



Zaragueta ikastetxean sei gela berri eraikiko dituzte ikasketa ziklo berria eskaini ahal izateko. KARKARA

# Olentzero eta Mari Domingi, 24an, larunbatean etorriko dira

Arkupek, Txurumuskik, Udalak eta herriko bi ikastetxeek abenduaren 24rako *Olentzero eta Mari Domingiren etorrera* antolatu dute. Arratsaldeko 17:00etan hasita, jai handia prestatu dute.

Urtero egiten den Olentzeroren ongietorri festa handitu egingo dute aurten Arkupe, Ikastola, Txurumuski, Udala eta Zaraguetaren artean. Goizean, ikasleak kantari ibiliko dira eta, eguerdian, Elkartasun tonbola egingo dute DBH 4. mailako ikasleek. Baina, aurten arratsaldea desberdina izango da beste urteekin alderatuz.

Arratsaldeko 17:00etan ttuntturroak

aterako dira Ikastolatik eta herrian buelta emango dute Olentzero datorrela esateko. Musika eskolatik, 17:30ean, Mari eta sorginak abiatuko dira eta, Goiko Kalletik ibili ostean, Bikamiotara, Arrantzale kalera eta handik plazara joango dira. Galtzagorriak Kosta tailerretik irtengo dira eta horiek ere plazaraino joango dira. Artzainak eta Basajaun gaztetxetik irtengo dira Anibarko Portura eta han-

dik, errio ondotik, plazaraino joango dira horiek ere.

17:30etik 18:30era, galtzagorriak Olentzero eta Mari Domingirentzat diren eskutitzak jasoko dituzte eta txokolate beroa banatuko da. 18:00etan iritsiko dira plazara Mari Domingi eta Olentzero. Otxoteak abestuko du ongietorria emateko eta, gero, kalejira egingo dute. Bidean lau geldialdi egingo ditu desfileak, Kultur Etxean, Sarasua parean, Itziar kirolak dendaren atzeko aldean eta Arkaitz tabernaren parean. Antillara iristean, datorren urtera arte agur esango ditugute Olentzerok eta Mari Domingik.



Arratsaldeko 18:00etan iritsiko da Olentzero plazara Mari Domingi lagun duela. KARKARA

## LABUR

### Gastronomia

#### Kepa Loidi irabazle Tolosan

Gabonetako 20. feria berezian, Kepa Loidi oriotarrak odolki lehiaketa irabazi zuen Tolosan. Duela 16 urte hartu zuen parte lehen aldiz eta hau irabazten duen 6.a da. Txapelarekin batera 150 euro, garaikurra eta datorren urtean behar beste odolki eramateko enkargua irabazi ditu. *Odolkiak naturala izan behar du %100ean, ez plastikozkoa* esan zuen Kepak Tolosan.

### Musika

#### Bi domina oriotarrek Arrasaten

Orioko Danbolin musika eskolako bi ikasle izan ziren abenduaren 3an eta 4an Arrasaten egindako 24. akordeoi jaialdian. Orioko bi neska izan ziren han eskuoinua jotzen eta emaitza oso onak lortu zituzten. Ane Carrerak B mailan hartu zuen parte eta zilarrezko domina eskuratu zuen. Olatz Dorronsorok, berriz, C mailako urrezko domina zintzilikatzea lortu zuen. Musika eskolak argitaratutako oharrean esan du *emaitzarekin oso gustura* daudela eta *ikasleei eta irakasleei zorionik beroenak* eman nahi dizkietela.

### Merkataritza

#### Erakusleiho lehiaketa

Aurten ere erakusleihoen lehiaketa antolatu du Udaleko Merkataritza batzordeak Gabonetarako. Lehen epaimahai batek aukeratzen zuen irabazlea, baina aurten herritarrek izango dute aukera, abenduaren 31 arte horretarako propio jarri dituzten kutxetan botoa emanez. Goxoki, Il Gelato, Kutixi, Ogiberri eta bi Sayaleroetan egongo dira kutxak. Sariak izango dira bai erakusleihoa jarri dutenentzat -4 sari guztira- eta baita parte hartzen duten herritarrentzat ere -dendetarako 12 bono-. Erabakia urtarrilaren 2an jakingo da.



Muntoko lanak 2. fasean daude, nahiz eta Auzitegi Gorenaren epaiak eraginik izan dezakeen bertan. KARKARA

# Auzitegi Gorenak baliogabetu egin ditu Orioko arau subsidiarioak

Arau subsidiarioak onartuta zeuden arren, aurkeztutako helegiteetariko batean oinarrituz, arauak bertan behera uzteko azterketa ekonomiko-finantzariorik ez egin izana arrazoitu dute

Orioko Udalak aurkeztutako errekurtsioa onartu ez eta Espainiako Auzitegi Gorenak baliogabetu egin ditu Orioko arau subsidiarioak.

Orioko hirigintza-antolaketa definitzen duten arauak dira arau subsidiarioak eta Auzitegi Gorenak horiek atzera botatzeak esan nahi du Orioko lurralde antolaketa zalantzan jartzea, arau horietan erabakitakoa baliogabetzat jo baitute.

Arau subsidiarioak onartuta bazuden ere, horien inguruko hainbat helegite aurkeztu dira. Horietako batek eskatzen zuen familia batenak ziren lur batzuk urbanizatu ahal izateko gaitzea, arauetan ez baitzegoen hori aurreikusita. Horrez gain, epaiak dio arau subsidiarioak ez direla bidezkoak, azterketa ekonomiko-finantzarioa aurkeztu gabe tramitatu zirelako. Gainontzeko helegiteak ez dituzte onartu; baina, bi horietan oinarrituz, Auzitegi Gorenak adierazi du, lur horiek eraikuntzarako ez gaitu arren,

azterketa ekonomiko-finantzariorik egiten ez bada, bertan behera utziko dituela arau subsidiarioak.

Auzitegi Gorenak emandako sententziaren arabera, arau subsidiarioak bertan behera uzteak eragina izan dezake herrian eta inguruko hainbat lanetan, besteak beste, portuko plan berezian, A8 autobideko loturan, Orioko saihesbidean, gune libreetan, gune berde eta kirol guneetan, zubi berri baten eraikuntzan, parkeren batean, eta babes ofizialeko etxebizitzetan.

## Merkatarien eskaria

Gaiak eman du zeresanik herrian. Besteak beste, Arkupe Merkatarien Elkartek dio Munton, kirol zelai azpiko aparkalekuen harira, *aurreko Udalen kudeaketan irregulartasunak antzeman dituela*. Elkartek aparkalekuak, oriotarren eta bisitarien onerako, publikoak izatea eskatu izan duenez, eta *arau subsidiarioek Munto plana barne hartzen dutenez,*

arauak ezeztatuta geratzean, eskutitz baten bidez –ikus 4. orrialdea– Udalarik honako hau eskatu diote: *egoera argitzeko, eta xehetasunez kaltetuak informatzeko eta, hemendik aurrera, irregulartasunik ez egiteko.*

## Udala zuhur

Orioko Udalak adierazi duenez, *zuhurtziaz jokatu dugu gai honetan eta hala jokatzeko eskatzen diogu gainontzekoei ere*. Era berean, informazioa arduraz emango duela ere jakinarazi du, *gai konplexu eta garrantzitsua baita*.

Gaiaren garrantzia ikusita, udal ordezkariak Gipuzkoako Foru Aldundiko lurralde antolaketako diputatu Juan Karlos Alduntzin eta zuzendari Peio Gasconekin ari dira horri buruz hitz egiten, arazoari nondik heldu erabakitzeko. Gipuzkoako Foru Aldundiko Erregimen Juridikoko departamentuko arduradunekin ere elkarlanean ari dira epai horren ondorioak zein izan daitezkeen zehatz-mehatz ezagutzeko. Beraz, *Orioko Udalak, informazio guztia zein den jakin ondoren, erabateko konpromisoa hartzen du herritarrei beharrezko azalpen guztiak emateko.*



KARKARA

# Olidenen *Castaño* idia nagusi Heldu!-koen aurkako apustuan

Desafioak izugarritzko ikusmina sortu zuen eta parte-hartzaileak *pozez zoratzen* zeuden sortutako giroarekin eta animoekin. Herri kirolak berriz ere jende aurrera eramateko gogoia piztu die horrek.

Desafio ikusgarria izan zen San Nikolas hirugarrenean Herriko Plazan, 1.000tik gora ikusleren aurrean. Iñaki Olidenen *Castaño* idia eta Iñigo Peñak, Jon Etxeberriak, Ander Zinkunegik, Iker Mantrolak, Haritz Lertxundik, Egoitz Makazagak, Imanol Etxeberriak eta Bertin Trillok osatutako Heldu! taldeko zortzikotea nor baino nor aritu ziren 900 kiloko harriarekin, 20 minutuan zeinek plaza gehiago osatu. Gotzon Iruretagoiena laguntzaile zuela, Iñaki Olidenek gobernatutako idia indartsuago aritu zen eta 51 plaza eta laurden egin zituen; Heldu!-koek, berriz, 50 plaza, metro bat eta 60 zentimetro.

Proba bukatuta, Heldu!-koen prestazaila Pello Saizar pozik zen: *Lan ona egingo genuela bagenekien, baina zenbaterira iritsiko ginen ez. Gure helburua idia ahalik eta gehien estutzea zen eta hori lortu dugula uste dut; beraz, pozik goaz*

Iñaki Oliden ere oso gustura zen. *Herriaren aurrean horrelako proba bat egin genuen lehen aldian eta jendeak*

*erantzun hori ematea, animatu gaituzten bezala animatzea, eta proba hain justu irabaztea... ez dago gehiago eskatzerik. Heldu!-koen zorionak ere jaso zituzten. Lehen minututik ez zen harririk libratzen eta ezinean 20 minutu lanean betetzea ikaragarria da, dio Saizarrek. Olidenek ere haien lana goraiatu du: *batak zein besteak marka egin dugu, denok irabazi.**

## **Dema plaza eske**

Baina zailtasunak ere hor daude agerian: *Hezetasun handia zegoen eta harria asfaltora asko pegatzen zen, lixa bezala bukatu du, dio Saizarrek. Olidenen ustez ere, *justu-justu dago biratzeko tokia, kallean pintura dago, idia labanduegitenzen eta, postura hartu ezinik, idia bera ere ohitu arte kostatu zaio. Behin martxa hartu dugunean, gustura ibili gara.**

*Sortutako giroa ikusita, plaza bat egin behar dela Orion esan diegu agintariei. Saiatuko direla erantzun digute; beraz, hurrengo urtean plaza inauguratzea izango da gure nahia, dio Olidene.*

## **LABUR**

### **Paddlea**

#### **Txapelketa Gabonetan**

Ireki zituztenean egin zen bezala, paddle txapelketa antolatu du Orioko Udalak Gabonetarako. Muntoko kirol eremuan dauden paddle pistetan jokatuko dira partidak urtarrilaren 7an eta 8an. Izena emateko, gutxienez 16 urte eduki behar dira eta horretarako azken eguna urtarrilaren 4a izango da. Hilaren 7ko partidak goiz eta arratsaldean jokatuko dira, 8koak, berriz, goizez.

### **Saskibaloia**

#### **Teknikazio saioak**

Sanikolasetako 3x3 txapelketa arrakastuaren ostean, Gabonetarako LH5 eta LH6ko neska mutilentzat teknikazio saioak antolatu ditu ZASTek. Saioak abenduaren 26an, 27an eta 28an izango dira, goizeko 10:30ean nahi duenarentzat. Gainera, abenduaren 29an Donostian izango den 3x3ra joateko erraztasunak emango ditu ZASTek. Abenduaren 17an 3x3an parte hartu zuten jokalaribatzuek partidak jokatu zituzten Ilunben Lagun Aro GBCren partidako atsedendietan. Guztira, Orioko 15 jokalaritari aritu ziren partidatxoetan.



# “Badirudi gizonezkoek nahiago dituztela kirol lehiakorragoak”

## Mirari Arriola Irizar

Kirol monitorea

Unibertsitatean zuzenbide ikasketak egiten ari da 21 urteko oriotarra eta aisialdian, lana eta kirola uztartuz, besteen ariketak zuzentzen ditu Karela kiroldegian; aerobik, spinning eta multikiroleko monitore baita.

Ikastolan, soinketan, aerobik saio batzuekin hasi ziren eta gustatu egin zitzaion. Urtebete zaharragoa zen batek horrelako ikastaro bat egin zuela esan zion eta hortan segi nahi bazuen interesgarria zela. Beraz, 16-17 urterekin egin zuen aerobik eta bideratutako jarduera ikastaroa. Orain, hain zuzen ere, besteen kirol jarduerak bideratzen ditu.

### **Kirol monitorea zara, baina zein kirole-tan aritzen zara?**

Aerobik, multikirola eta spinning eskolak ematen ditut. Multikirolean denetarik egiten dugu aerobik, spinning, korrika, batuka ere egiten dugu...

### **Zuretzat kirola zaletasuna ala lana da?**

Lana bai, baina zaletasuna ere bada. Nire denbora eskaintzen diot gustuko dudalako, gustura joaten naiz, talde politikak dauzkat. Arratsalde joaten naiz ordu batzutan, gehiegi ere ez, baina prestatu ere egin behar dira saioak.

### **Nola prestatzen dituzu?**

Etxean, irudimena eta erritmoa erabiliz, bideoak ikusiz... batik bat aerobikean. Spinning-ean erritmoaren arabera gutxi gorabehera prestatzen ditut, baina ez da zaila. Spinning-ean musikan eguneratuta egon behar da.

### **Zein jende joaten da zure eskoletara?**

Denetariko jendea, 16tik 40 urte ingurura artekoak, aerobik eta multikirolera, batik bat emakumeak, eta spinning-en gizonezko batzuk ere badauden arren, badirudi gizonezkoek kirol lehiakorragoak nahiago dituztela. Bestela, gimnasioan gogorrago aritzen dira.

Gazteak astegunetan kirol pixka bat egiteko etortzen dira; nagusiak lanetik ateratakoan deskonektatzeko.

Denetariko jendea egonda moldatu beharra dago. Batzutan gazteei gehiago gustatzen zaizkien gauzak egiten ditugu, hurrengo zaharragoek nahiago dituztenak, baina ongi moldatzen gara.



KARKARA

Azken finean aerobik denek egiten dute, beroketatik hasi eta koreografia eginez 40 minutu, eta bukaeran tonifikazioa, pesak, abdominalak... giharreak lantzeko; beraz, batzutan egokitu egin behar izaten da, batzuk pesa txikiagoak behar dituzte, besteek handiagoak; abdominalak egiterakoan ere, batzuei beste bano gehiago eskatzen diet.

### **Zein alde dago spinning-aren eta aerobikaren artean?**

Spinning-a bizikleta gainean egiten da eta, batik bat, hankak mugitzen dira. Aerobiketan, dantza modura egiten denez, gorputz guztia lantzen da; gainera, bukaeran abdominalak ere egiten ditugu...

### **“Gazteak, astegunetan kirol pixka bat egiteko etortzen dira; nagusiak lanetik ateratakoan deskonektatzeko, batik bat, emakumezkoak”**

“Spinning-a bizikleta gainean egiten da eta, batik bat, hankak mugitzen dira. Aerobiketan, berriz, dantza modura egiten denez, gorputz guztia”

### **Zein dira kirol horien zailtasunak?**

Spinning-ean, bizikleta gainean pedalei eraginez, azkarrago edo motelago eta gora eta behera aritzen gara, baina erritmoa jarraitzea nahikoa da; hala ere, pixka bat gogorrago izaten da. Aerobiketan gorputza mugitzeko erraztasun pixka bat behar da erritmoari jarraitzeko. Nik ez dut eskatzen koreografia zehatz egitea, baizik eta erritmoa jarraitzea eta bakoitzak ahal duena egitea. Beraz, jendea-ri gurera lasai etor dadila esango nioke. Bakoitzak ahal duenera egokitzen saiatzen gara eta aurretik inoiz egin ez arren, pixkanaka hartuko dutela erritmoa; aerobiketan ez dira pauso zailak eta spinning-ean segituan ohituko dira.

### **Aerobik edo spinning-ak zergatik ez dute beste kirol batzuk adina sonarik?**

Futbola edo antzeko kirolekin ezin daiteke alderatu, baina horietan lehiara joaten da jendea. Aerobika, berriz, ordu librean kirol pixka bat egiteko modua da, baina ez da irabazteko edo galtzeko. Noiz edo noiz aerobitoiak egiten dira eta koreografiarik onenak saritu, baina ez dago beste kirolean bezalako lehiarik.



KARKARA

## “Bizi izan naiz lekuaren iragana aurkitu dut baserrietan”

### Leire Iburguren Iburguren

Arkitekto teknikoa eta eraikuntzan ingeniaria

Arkitektura tekniko ikasketak bukatzeko proiektuan Aiako baserriak aztertuko zituela erabaki zuen Leirek. Liburutegian aurkitu dugu, egindako lana eta horren inguruan hitz egiteko elkartu garenean.

#### PAT COWIE

Master bat ere egin du Leirek eraikuntza ingeniaria izateko, eta praktikak egin zituen enpresan lanean ari da gaur egun, Oronan, igogailuak egiten dituen enpresa handian, Hernanin.

#### Gaia bereziki kutuna zenuen?

Historiazale den irakasle batek baserri bat aztertzeko gomendatu zidan, baina behar nuen informazioa lortzeko zailtasunak ikusita, eta baserrietan interesa askotakoa izan daitekeela kontuan har-

tuta, azkenean, interes historiko edo kulturala dutenak, aukeratu eta iturrietara jo nuen datu bila. Zoritzarrez, suak bi aldiz hartua da Aiako artxiboa, eta lehengo informazioa galdu dugu.

#### Gustura egiten da halako lan bat?

Gai asko sartzen dira, eta emango lukete beste proiektu asko egiteko: fatxadak, baserrigintza, patrimonioa, historia... Azken hori da interes gehien piztu zidana, ez historiazalea naizelako, baizik eta beti bizi izan naizen lekuaren iragana aurkitu dudalako, ezagutzen ez nuena. Informatuago sentitzen naiz, eta prakti-

kan ikusi dut klasean aipatutako gauza asko.

#### Figura eta irudi asko erabili dituzu

Horiek gabe, testu soilen bitartez, zaila da arkitektura esplikatzeko; zaila eta lehorra. Gainera, baserri batzuetan izandako transformazioa hobeto ikusten da lehengo eta oraingo irudiak elkarren ondoan jarrita. Edo, Aranburu Zahar kasuan, esaterako, patrimonio historikoa izendatu zutelako, nola mantendu den barrutik lehen bezalaxe, lo tokiak eta guzti, nahiz eta, akaso, familia erosoago sentituko litzatekeen transformazio gehiago egiteko aukera izan balu.

**“Gai asko sartzen dira, eta emango lukete beste proiektu asko egiteko: fatxadak, baserrigintza, patrimonioa, historia...”**

“Bioklimatikako ikastaro bat egiten ari naiz aurten. Gaur egun ez baduzu ikasten jarraitzen, jai duzu!”

#### Baserritatean biziko zinateke?

Lehen, mendian zegoen etxe bat zen baserria, eta hortik bizi zen jendea, baina gaur egun mendian dagoen txalet bat da, etxeko animalia pare batekin, edo abereak izanez gero, aparte. Ez naiz baserritarra; amona eta gurasoak, bai. Txikitari amonarenera joaten nintzen, eskuarea eta sardearekin ibiltzen nintzen, trakto-rea gidatu, txerri tartean aritu... baina ostalaritzakoa gehiago izan naiz baserriko baina.

#### Zure lana erabilgarria izango al da?

Herriari buruzko zerbait jakin nahi bada, bai, baina ez da historia sakon aztertzen eta ez dago arkitektura teknika-ekin lotura handirik. Halere, epaimahaiari gustatu zitzaion eta hamarretik bederatziz eman zitadaten.

#### Eta gaur egun zertan zabilta?

Praktikak egin ondoren, Oronan jarraitu dut. Irudia berdetu nahi zuten, eta egiten dutena ekologikoago bihurtu; beraz, Espainian barrena bidaiatu dut bi arkitektoekin, bulegoen itxura eta distribuzioa egokitzen. Bulego berriak ditugu Frantzia eta Portugalen, eta Galarretan egiten ari den Donostiako parke teknologikoko zabaltzean parte hartzen ari gara. Oso interesantea da enpresa hartzen ari den bidea, etorkizunari egokitu. Hori dela eta, bioklimatikari buruzko ikastaro bat egiten ari naiz momentu honetan. Gaur egun ez baduzu ikasten jarraitzen, jai duzu!



Eskolako umeak gurasoekin joango dira kantura abenduaren 24ko goizean baserriz baserri. KARKARA

## Gabonetan eskea, irteera, pailazoak eta filmak izango dira

Helduek abenduaren 24an kanturako aukera izango dute eta San Silbestre eguneko lasterketan korrika egiteko ere bai. Haur eta gazteek ere ludoteka eta gaztelekua zabalik dituzte bi egunetan.

Gabonak gainean ditugu eta herritarren zako –batik bat, haur eta gaztetxoentzako– ekitaldiak antolatu dituzte.

Abenduaren 24rako Gabon eskea antolatu dute. Goizean, eskolako umeak kantari joango dira baserriz baserri gurasoekin. Arratsaldean, berriz, herrian egingo dute eskea kantuan herritarrek. Andatza auzoan ere goizez etxez etxe kantuan ibili ondoren, Olentzero etorriko da 14:00ak aldera, gutunak jasotzera.

Abenduaren 28rako irteera antolatu dute. Autobusez joango dira arratsaldean Irunera Haurren Gabonetako Parkera eta han gaztelu puzgarrietan, margotzen, jolasean... arituko dira.

### Film emanaldiak

Gabonetako oporretarako film emanaldiak ere antolatu dituzte. Abenduaren 26an haurrentzat *Ga Hoole* filma izango da eta nerabeentzat *Hanna*; 30ean *Rio* eta *Sin Compromiso*; urtarrilaren 3an *Cher Ami* –euskaraz– eta *Austin Powers*,

*la espía queme achuchó*; eta 8an haurrentzat *Rango*, baina nerabeena aukeratu gabe dago. Emanaldiak 17:00etan eta 18:30ean izango dira Kultur Etxean.

Bestalde, Gabonetako oporretan, bi egunez, ludoteka eta Xatur gaztelekua irekita izango dira. Abenduaren 27an eta 29an ludoteka goizez zabalduko dute, 11:00etatik 12:00etara txiki entzate eta, handientzat, 12:00etatik 13:00etara. Xatur gaztelekua, berriz, arratsaldean, 16:00etatik 19:30era.

Haur eta gaztetxoek ez ezik herriko helduek ere izango dute Gabonetan zer egitekorik. Abenduaren 31n, urtea ongi bukatzeko, San Silbestre lasterketa izango da arratsaldeko bostetan.

Azkenik, urtarrilaren 4an Bizarzuriren etorrera ospatuko dute Aian, arratsaldean. *Irrien Lagunekin kanta eta dantza pailazoan* ikuskizuna izango da 16:00etan eta, gero, Bizarzuri pilotalekura iritsi ahala, umeek eskutitzak emango dizkiote eta goxokiak jasoko dituzte.

## LABUR

### Argazki lehiaketa

Jose Angel Aldairen eta Juanjo Garciaren lanak irabazle

Abenduaren 19an banatu zituzten aurtengo argazki lehiaketako sariak. 39 argazki onartu zituzten lehiarako eta partaideak 17 izan dira guztira, 8 herrikoak eta 9 kanpokoak. Herrikoen artean Jose Anjel Aldaik lortu du lehen saria, Eba Arrati belek bigarrena eta hirugarrena Aran Aldaik. Kanpokoetan, berriz, Juanjo Garciaren argazkia izan da irabazle eta bigarren eta hirugarren Oliver Perez eta Ivano Peruchenak, hurrenez hurren. Argazkietan besteak beste, Agorregi, Iturri kalea, herriko plaza Juanenetik aterata, iturriako bidean dagoen egurrezko seinalea edo ur bedein katua ontzia ikus daitezke. Argazki irabazleekin eta jendeak erakusketan aukeratuakoekin 2012ko egutegia egin dute eta Aiako etxeetan banatu.

### Idi-dema

Oliden eta Arbearen apustua

Urtarrilaren 1ean, 12:00etan, Aiako probalekuan Iñaki Olidenek eta Manuel Elustondo Arbeak apustua jokatu dute. Biek aurkeztuko dituzten idipareak sekula plazaratu gabeak izango dira eta Urgain harriari tiraka aritu behar dute. 1.600 kilo dituen harriak eta 110 kiloko gainzama jartzen diote. Gipuzkoako bina itzain izango dituen idipare bakoitzak eta Oliden bera izango da bere idiak gidatuko dituenetakoa. Apustuan 4.000 euro izango dira jokotan –2.000 euro bakoitzak–. Proba Urteberri egunean izango bada ere, eguerdian izanda, pisaketa aurreko egunean egingo dute, abenduaren 31n, 18:00etan. Idipare bakoitzak 1.100 kilo pisatu behar du eta pisua gaindituz gero, kilo bakoitzeko kilo eta erdiko gainzama jarriko diete.

### Politika

Igor Iturain Batzar Nagusietan

Aiako alkate Igor Iturainek Gipuzkoako Batzar Nagusietan batzar kide kargua hartu zuen abenduaren 12an Arantzeta Tapia Otaegi ordezkatzuz. Osoko bilkuran batzar kide izanda, hilabetean behin parte hartuko du bileretan. Horrez gain, Ingurumen eta Lurralde Antolaketa batzordeko eta Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismo batzordeko kide ere bada.

## Eunon, earra dao ta!

Tzatez zarauztarra naiz, baina badaramatzat urte batzuk Aian bizitzen. Beti gustatu izan zait herri hau, bere giroa, ingurua eta, batez ere, jendea. Herri txikia eta lasaia da oso; agian, batzutan gehiegi, baina, aldi berean, badu bere xarma. Herriz aldatzea erabaki nuenean, banuen beldurra, azken finean, ia hiri bilakatzen ari baita Zarautz eta Aia, berriz, nahiz eta urte gutxitan hazi egin den, orain dela urte batzuk txikiegia iruditzen zitzaidan.

Gauregun, ordea, ez dut hori pentsatzen. Ez dut esan nahi herri perfektua denik, ezta gutxiagorik ere; baina, agian, idealtasun puntu batera hurbiltzen dela, bai. Egia da, gauza batzuk faltan bilatzen ditudala, baina, berez, beharrezkoak ez

direla esan liteke, izan ere, beharrezkoa diren gauzak baditu eta. Beharrezkoa eta komoditatea hitzen esanahia bereizten jakin behar dugu.

Komoditatea denontzat da gustukoa eta, hasiera batean, ondo etortzen da, baina pertsona bezala aldatu egiten gaitu, gurekoiago bihurtzen. Aian beti ezagutu da lana elkarrekin egite hori edo auzolana deitzen dena. Garai batean, eta oraindik ere baserri batean txerria hiltzeko garaian, adibidez, auzokoei abixatzen zitzairen eta denen artean egiten zen. Beti erakutsi digute, elkarren artean lana eginda edota elkarren laguntza izanda, errazagoa dela dena eta hori praktikan jartzea ahaztu egiten zaigu.

Herri hau ezagutu nuenean, hori da gehien gustatu zitzaidana, beren arteko

harremana edo adiskidetasuna. Beti dago baten bat laguntzeko prest, edota, kalera ateratzean, beti izango duzu *eunon* edo *atzaldeon* esango dizun herritarren bat baino gehiago.

Hori hirietan eta herri handietan galtzen ari da. Horrekin ez dut esan nahi hirietako edo herri handietako pertsonak txarragoak direnik; baina harreman hotezagoa dutela, bai.

Badakit Aiako herria urtetik urtera hazten joango dela, baina espero dut jendearen arteko harreman polit horri tinko eustea.

Kalean ikusten nauzuenean *Eunon, earra dao ta* edo horrelako agurren batekin kasu egiten segitzea nahi nuke. Agurtzea ez baita ezer kostatzen eta ez dute kobratzen.



### Txokoak eta jendea Kapoeiek eta oilaskoek, Urretxun saria

Santa Luzia azokan izan dira kapoi eta oilaskoekin hainbat aiar eta baita sariarekin itzuli ere. Euskal arrazako kapoietan jaso dute saria Ibarrolabeko Nekane Gonzalezek (erdian) eta Errekondoko Carmen Egurzak (Ander, eskubian, sariarekin). Aiene baserriko Jose Ignacio Egurzak (ezkerrean), berriz, Euskal arrazako oilaskoetan.

**agirresarobe**  
 PROIEKTUAK, OBRAK ETA ERREFORMAK

- OBRA BERRIEN PROIEKTUAK
- ETXE ETA LOKALEN ERREFORMAK
- FATXADEN ERABERRITZEAK
- IGOGAILUEN PROIEKTUAK
- GREMIO KOOORDINAKUNTZA
- INFORMEAK, OBRA LEGALIZAZIOAK, ...

ITURRIBIDE 8, S. BULEGDA, ZARAUTZ  
 BORJA AGIRRESAROBÉ, ARKITEKTOA 635 731722

 **AKOBE ACTIVA**  
**JUAN ALBIZU**

Etiketresna elektrikoak  
 sukaldeko altzariak

Abeslari, 5 - 20810 ORIO  
 Tel/Fax: 943 83 12 49 - albizu@activohogar.com

 **azkue**

Tf: 943 13 04 38

 **ALTERRI**  
 Karta eraberritua

Asteburuan, eguraldi eta guretan,  
 menu berriak

943 83 07 62

 **Allianz**

Marigre Zaldua  
 aseguru agentea

Itel Onko, 10 bene oiko  
 telefono: 943 13 47 60  
 fax: 943 83 57 62  
 e-mail: zaldia@cazador.pajallianz.es

*edari teknika*  
**ANTILLA**  
*jalekoei*

Muskiz Kalea, 2 - Tel: 943 83 29 00

Kinkiladenda - Ume arropa  
**argine**

www.leadnet.com/argine  
 Tel: 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA  
 UGARIEI TXARTELAREKIN

**ARISTERRAZU**  
 jatebxea

Andatza auzoa AIA  
 Tel. 943 83 45 21

**Automóviles ZARAUTZ**

OTROEN ZERBITZU OHIKIA

TRAKTU, BERRIK  
 eta izen berriak  
 zuzen

ZARAUTZ, 943 13 33 50

**estilo berria**

Ogitaritokoak  
 Plater konbinatuak  
 Etzeko janaria  
 Pintxoak

943 13 13 12  
 AIZ

Carmen eta Txomin  
 ARBIDEZIAN

943 83 05 37 / 943 83 27 47

**Alustiza Autobusak**  
 S.A. - Gudañak S.L.

Autobus litera eta  
 16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
 Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel: 943 13 28 93, 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01, 656 78 29 99

**AHOLKULARITZA**  
 Fisikoa, inbentario, kontablea

**Eugenio Garmendia**

ASEGURU ARTEKARIA

IBAI ONDO, 1  
 Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

 **ARDATA moda**

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

**Gabon**  
 TABERNA

Plater konbinatuak  
 pintxoak

Tf: 943 83 06 09

 **ARKAITZ**  
 Taberna

Pintxoak,  
 plater konbinatuak  
 eta ogitaritako mundialak

MIESTAR KALEA, 1 Tel: 943 83 16 57

**azkue**  
 karrozeria

Ubegun industrialdea, 7 20809 Aia-Orio  
 Tf/fax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com

# Argia, egurra eta harria, elizaren itxura berrian nagusi

Orioko Bariko San Nikolas parrokia zaharberritzen aritu dira uztailetik abenduaren hasiera arte. **Unai Manterola apaizarekin jardun dugu lanei buruz hizketan**, eta elizan egin diren berrikuntzak eta aurretik ere eginak zeuden beste batzuen hainbat xehetasun kontatu dizkigu.

**TESTUA: IKER GURRUTXAGA**  
**ARGAZKIAK: KARKARA**

Orioko zaindaria da Bariko San Nikolas. Orion eta mendebaldean Bariko San Nikolas bezala ezagutzen dugu III. eta IV. mendean bizi izan zen gotzaina, gero santu egin zutena.

Errusiako, Greziako eta Turkiako zaindaria ere bada. Han, ekialdean, Myrako San Nikolas bezala ezagutzen da. Myran hil zelako. Guretzat Barikoa, haren hezurak Barira eraman zituztelako.

San Nikolasen bi irudi daude elizan. Bata erretaularen goian eta bestea sakristian. Sakristiakoa, aurreko aldarean egongo zena, beltza da eta goian agertzen

dena, zuria. Aldarea, gaur dagoen bezala, *harmonian* dagoela kontatu digu Unai Manterolak. *Aldareko mahaia, lehen era-biltzen genuena, aldarearen zatia zen. Berriz lehengo tokian jarri dugu eta aldarea harmonian utzi. Garai batean bizkarka ematen zen meza eta hori egiteari utzi zitzaionean, aldare zati hori hartu zen mahaitzat. Lehen zen bezala utzi dugu.*



**Aldaketa nabarmenenak**

Aldaketa asko egin dira Orioko elizan. Sartu eta segituan antzematen da argitasunean irabazi duela. Sabaia zuriz margotu da, eta pareta guztiak garbitu. Argiteria ere berritu da eta, oraindik detaile batzuk falta badira ere, itxura horrekin geratuko da eliza.

Aldarera begira jarri eta guztiz aldatuta dago. Aldarea eta irakur-tokia –anboia– harrizkoak dira. Oinez ibiltzen hasi eta leuntasuna nabari da, lurrera begiratu eta guztia berrituta dago.

*Itxaspeko lurretatik ateratako harkaitz baterabiltza egin ditugu lurreko baldosak, aldareko mahaia eta irakurtzeko mahaia. Baita gurutzaren oinarria ere.* Gurutzea ere berria da aldarean. Ganbaran gordeta zegoen gurutze bat da, hura txukundu eta harrizko oinarri batean kateatuta jarri dute.

Aldarera gerturatzean, aulkietara begira jarri eta aldatuta daudela ikusten da. *Belaunikatzeko koxkak kendu ditugu, lehen lerroko aulki bereziak ere bai. 1963koak dira aulki guztiak eta berritu egin ditugu.* Aulkien azpian egurra dago orain. Lurrean, 22. salmoaren azken esaldia dago idatzita. Ezkerrera begiratu eta Maria Magdalena dagoen txokoa guztiz aldatuta ikusten da. Lehen zuen pintura beltza kendu eta harria utzi dute bistan. San Pedroren *txokoan* bada, ordea, beste berrikuntza. Aldarean zegoen sagrarioa tokiz aldatu da eta Zaragozatik ekarritako berria jarri dute han. Kutxa modernoa da, eta bertan gordeko dira meza garaian banatzeko jaunak.

Elizako egur guztia berrituta dago, lehen zegoena mimo handiz txukundu dute, barnizen ordez olio bereziak erabiltza. Sarrerako ateak ere berritu dituzte, eta plaza aldeko zimitorioko ate txikia elbarrientzako egokitu. Koruko eskilaren mailak ere berriak dira, nahiz eta egitura lehengo bera izan. Eliza koska bat gorago dago orain, eta zoru zaharra oraingoaren azpian geratu da; aldarera berriz begiratzeari konturatzen gara horretaz.

Koruko eskilarapean biltegi moduko bat, eta ondoan ate bat daude. *Konfesionarioa da hori. Lehengoak kendu eta aurrez aurre izango gara hemendik aurrera konfesatu nahi duena eta ni. Tratu zuzenagoa eta goxoagoa izango da modu honetara* esan digu Unai Manterolak. Korura igo eta organoa falta dela ikusi dugu. *Beranduago etorriko da, eta mekanikoa izango da guztiz. Organo-jolea bizkarra eman jarriko da, gainera.* Koruan 50 bat lagun kabituko dira, kantariak eta beste 15 bat.

Soinu ekipoa informatizatua da, eta proiektore jarri dute orain, eduki multimedia eman ahal izateko. Eliza 3.0.



Ezkerretik eskuinera eta goitik behera. 1.- Maria Magdalenaren irudia, inguruan duen arku beltz kolorekoa zegoen aldareko harri berriak ikusi daitezke, Itxaspeko lurretan zegoen harkaitzetik eginak. 3.- Plazako zimitorioko ate zaharren arku gotikoak bistan utzi dituzte. 5.- Konfesionario berriak bulego itxura du, korura igotzeko eskilarekin jarri dute baldosa batean. 7.- Bihotz formak dituzten bobadak kolore zuriz margotu dituzte. 8.- Jose Inazio Murrutxukoren irudian. 9.- Elizaren kanpoaldean irudian bezalako 4 gezileiho utzi dituzte agerian. 10.- Goiko Kalera ematen dute.





## ALDAREA, LEUNA BEZAIN LATZA

**A**ldarea da, zalantzarik gabe, eliza bateko gauzarik garrantzitsuenen bat. Bertan gertaberritzen delako kristauontzat garrantzitsuenen dena: Jesusen heriotza-piztuera.

Orioko gure Elizak, beste askok bezala, gurutze latino forma du. Aldaretik atzeraino lerro bertikala eta San Pedroko txokotik, Errosarioko txokora lerro horizontala. Gurutze horren gorputzean, eliztarrak. Gurutzearen burua, Aldarea; hau da, Jesu Kristo.

Aldarea harrizkoa egitean, Kristo gure harkaitz eta oinarri sendo dela irudikatu nahi izan dugu. Paradoxikoki baztertua eta hila izan zen gizakia gertatzen da fededunontzat gure bizitza eraikitzeko giltzarria.

Aldi berean, Aldaretzat jarri dugun harriak gaina pulituta du -Kristori onena eskaintzen saiatzen gara-, baina alboak harri naturala dira, bizitzaren kolpeak eta ezinak irudikatuz.

Ezin dugu fedea ospatu, onena bilatu, munduaren kolpeak eta sufrimenduak otordu-mahai horretatik kanpo utzita.

Hitz hauek egin zituen Jose Inazio Munillak abenduaren 4ean aldare berria sagaratu zuen egunean. Aldarea, irudietan ikusten den bezala, harrizkoa da eta propio Orioko lurretatik ekarritakoa.

Unai Manterolak kontatu digunez, gainera, anboia ere nahita egin du gain lauarekin. Aurrekoetan atril itxura zuen eta inklinazioa, baina kristauentzat bi mahai dira aldarekoak: hitzaren mahaia eta janariaren mahaia.

Biek hala biek mahai itxura izatea garrantzitsua da kristauontzat, hitzetatik eta janaritik elikatzen baikara esan zizun apaizak.

Harkaitzak Itxaspetik aldarerainoko bidea eginda, itxura guztiz aldatu zaio Orioko aldareari. Ikusi ez duzunontzat, gomendagarria da elizara bisita bat egitea. Aurreko itxurarekin ez bezala, duen irudi berrituak bertan sartzeraz gonbidatzen du. Halako emaitza batek merezi du bisita egiteak. Ez du zertan meza garaian izan beharrik.

1.- Lehen eta azpian duen harria agerian utzi dute. 2.- Sagrario berria jarri dute San Pedroren txokotan. Atzean ere txikia ere berria da, elbarrientzako aldapatxoa eta guzti egin diote. 4.- Koruaren atzeko aldean ezkutatuta sagaratu egin da konfesatzeko leku berria. 6.- Aldarera igotzeko eskilaren aurrean, 22. salmoko azken esaldia irakurri eta Unai Manterola aldarea sagaratu zen egunean. Munilla mahai berria bedeinkatzen ikusi daiteke. 7.- Lehen zimitorioko sabaia zaharberritu dute.

# Apaiz kontuak

**A**urreko asteburuan mezetan izan nintzen aspaldiko partez. Lagun batzuren ezkontza ospatzen genuen eta horregatik joan nintzen Jaunaren etxera. Besteak zioen bezala, bataio, jaunartze, ezkontza eta hiletetan soilik gerturatzen naiz ni elizara.

Gehienetan jaramon gutxi egiten diet apaizaren esanei, baina larunbatean kontatu zituen bi pasarte edo metafora gustatu zitzaizkidan. Bikoteak elkarri baietza eman eta elkarri eraztuna jarri aurretik ipuin polit hau kontatu zuen.

Ba omen zen bikote bat, gure lagun horiek bezala, harremana formalizatu edo instituzionalizatu nahi zuena. Horregatik, xaman batengana gerturatu ziren errito edo antzeko zeremonia bat egiteko. Aurretik, ordea, baldintza bat jarri zien xamanak. Bakoitzak bere herriko mendirik altuenera igo behar zuen, arrano bat harrapatu eta arranoa bizirik zutela herrixkara jaitsi. Hilabeteren bueltan bikotea herrixkan zen berriz

ere arrano banarekin. Baldintza beteta, bikotea xamanaren aurrera joan zen. Xamanak soka bat hartu eta arranoaren oinak eta bikotekide bakoitzaren eskua lotzeko eskatu zien. Orain saiatu hegan egiten esan zien xamanak.

Hori kontatuta apaizak esan zien ezkontzera zihoan bikoteari: *zuen ezkontz-bizitza ez dadila ipuineko horiena bezalakoia izan. Egin hegan arrano askeak bazinate beza-*

**Aurretik ordea, baldintza bat jarri zien xamanak. Bakoitzak bere herriko mendirik altuenera igo behar zuen, arrano bat harrapatu eta arranoa bizirik zutela herrixkara jaitsi. Hilabeteren bueltan bikotea herrixkan zen**

*la. Ezkontzak ez dezala zuen askatasuna mugatu eta zuen hegaldia eten. Ederra benetan!*

Eta iritsi zen eraztunak jarri eta arrak bata besteari emateko garaia. Eta, kasu horretan ere, apaizak bazuen zer kontatu, ipuina baino benetan gertatutako istorioa zen kasu horretan. Apaizak ba omen du lagun bat arrak bata besteari ematearen tradizioa gustuko ez duena. Ekintza horren bidez, lagunaren ustez beti ere, gizonak emakumea *erosten* omen du. Apaizak bazuen horrentzako ere erantzuna, eta hitz baten bidez azaldu zuen hori. Berak dioenez, ez da gauza bera banatzea eta elkarbanatzea. Kasu horretan arren bitartez ondasunak elkarbanatzen omen ditu bikoteak. Elkarbanatze hori sinbolizatzen omen du tradizio horrek. To, hori ere!

Apaizen kontuak alde batera utzita, Gabon zoriotsuak opa dizkizuet eta, halakoetan esan ohi den bezala, ondo bukatu urtea eta hobeto hasi berria!



**ITZIAR**  
kirolak  
Tel. 943 83 31 03

Joana Murgiondo  
Aseguru-agenetza  
ASEGIURUAK  
Abeslari, 4-2. esk.  
Tfnoa: 943 13 46 07

Igo zaitoz haize berrietara!  
**Galema**  
943890416 - 677149934  
galema1orio@hizimail.com

**Orioko Herri Ikastola**  
Guraso Kooperatiba  
ABESLARI KALEA, 8  
TEL: 943 83 47 04  
FAX: 943 13 09 38  
orio@ikastola.net  
www.oriokoikastola.net

**iñaki argazkiak caperochipi**  
ezkontzeka asmorik bai?  
www.ikapero.com/ezkontzak  
659378751  
ikapero@ikapero.com

**INDO**  
Garraio frigorifikoa  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA  
Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

943 83 09 86  
**KOASTA**  
Wifi zerbitzua  
Kontak gure gero anar...

**ITSASADARRA, S. L.**  
Jose Angel Iradi Udabe  
aseguru artekaria  
finika administratzailea  
gestoria  
onpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa  
Tel: 943 59 40 25 Fax: 943 83 54 98 itsasadarra@itsasadarra.com  
Ita-Oriko 4, beheko. 30310 Oriu

# Alderdien koloreen gaineratik, horia eta elkarlana

**E**z dugu polemika gehiago hauspotu nahi. Idatzi honen atzean ez dago kolore politikorik, kolore horia baizik. Alde batetik, argitu egin nahi dugu teknifikazio zentroaren egitasmoa nola sortu zen. Bestetik, alderdi politikoei eskatu ez, exijitu egin nahi diegu alderdikeriak utzi eta elkarrekin lan egin dezaten, proiektua behar bezala bukatzeko.

Teknifikazio zentroa ez da kapritxo bat. Ez da garai bateko arraun elkarteko eta Udaleko arduradunen handinahikeriaren emaitza. Handia da, bai, baina Udalez gaindiko kirol proiektu zabalago baten eta arraun elkartearen etorkizuneko premien neurritan eginda dago.

Arraun elkartearen egoitza berritzeko premia nabarmena zen. Eraikina zaharkitua geratu zen eta segurtasun arazo larriak zituen. Gainera, arraun elkarteari txiki geratu zitzaion. Zer egin? Eraikina berritu? Berria egin? Arraun elkartea egin zuen plan estrategiko bat, eta ezarritako lan ildo gehienak eraikin berri baten mende zeuden.

Udalari ongi iruditu zitzaion, baina ez zeukan dirua jartzeko asmorik. Diputazioak ere ez, eraikinak Orioko arraun elkartearentzat bakarrik izan behar bazuen. Hala ere, Diputazioaren eta beste erakunde batzuen diru laguntzen ateak zabalik zeuden azpiegitura Udalez gaindikoa izanez gero. Horrela, proiektuak jauzi bat egin zuen eta teknifikazio zentro bihurtu zen, beste baldintza, zailtasun eta aukerak sortuz. Betiere, jakinda Orioko arraun elkartea aterako ziola etekin gehien.

Ezarritako baldintzak onargarriak dira eta balizko oztopoak, gairatzeko modukoak: Espainiako Ingurumen Ministerioaren Kosta Zuzendaritzaren esku utzi behar izan da lurra, baina hori ezinbestekoa da; ur lasterren pista egiten ez bada ere, piraguismo federazioak interes handia du teknifikazio zentroan; urtean behin nazioarteko proba bat antolatu beharra ez da hainbestera; eta sei milioi euroko inbertsioetik lau milioi euro eta erdi lortzea bada zerbaite, agindutako gutzia ez bada ere.

Teknifikazio zentroak gastuak izango ditu, bai, baina baita dirua lortzeko aukera berriak ere. Berez, tresna bat izan beharko luke, sortzen dituen gastuak ordaintzeko eta arraun elkartearentzat diru sarrera osagarriak lortzeko. Ezin du diru galera etengabea izan Udalarentzat. Kudeaketa plan serioak eginda daude horretarako. Proiektua errentagarri egiteko, jakina, lana egin behar da eta proiektuan sinetsi egin behar da. Arraunean erreferentzia gara oriotarrak. Ustia dezagun.

Bitartean, ordea, batzuk beren kudeaketa gorai patzen eta besteei kudeaketa txarra leporatzen ari dira; besteak, berriz, aurrekoei pozoindutako gozokia utzi dietela esaten. Non daude herriaren interesak? Orioko herriak politikariei exijitu egin behar die botere aldaketak eta informazio trukaketa eredu garri egiteko. Elkarrekin lan egin behar dutela eta eskutik helduta joan behar dutela joan beharreko lekuetara. Hau ez da politikari baten edo alderdi politiko baten proiektua, herri batena baizik. Utzi ergelkeriak eta liskarrak. Lan egin, mesedez, teknifikazio zentroa ondo bukatzeko eta martxan jartzeko. Herriarrek alderdikeriak eta ideologiak alde batera uzten dituzte kamiseta horia jatzten dutenean. Zuek ere hala egiteko garaia da.

**Antonio Campos, Jose Mari Unanue, Luis Azkue, Iñaki Sarasua, Joxeju Olasagasti, Asier Ensal, Igon Lertxundi eta Joxe Kutz Exposito.**

## Gure kultura gure esku dago

**E**steetan ez bezala, gaur zalantzak izan ditut gaia aukeratzera koan. Buruan badut nahikoa nahaspila, saskibaloia dela –aupa neska! eta bejondeizuela 3x3an lagundu duzuen guztioi!–, *Egin dezagun bidearen* proiektua dela –hiru baitz urtarrilaren 7an!–, Herribil dela –asteazkena da eta ostiralerako lanak guztiz egin gabe. Gora Errikotxia, one-nak gaitunk!–...

Eta gaien artean, bada, azkenekoari heltzea pentsatu dut, Herribili, alegia. Iaz, gure txanda ailegatu bitartean, dantzalekuaren atzean zain ginela, tentuz egon nintzaian entzuten. Aurkezle gazteak, dantza taldekoak, hizketan. Txisteak eta dantzen artean jartzen ziren musika gehienak gazteleaz. Jo eta lor geratu nintzen. Bazirudien gure esketxak euskarari arnas pixkat emateko edo *enkargatu* zituztela.

Aurten, festetan –zorionak festa batzordeari, bide batez–, Dantzatxou delakoa ikusten ari nintzela, iaz Herribilen zen jende antzekoa oholtza gainean eta, beste behin, ia euskal musikarik ez *txouan*. Horrek kezkatu egiten nau. Gaur egungo gazteen musika eta bestelako kultur ohitura batzuek kezkatu egiten naute. Euskal dantzak egin, txistua jo, krikritixa jo... baina hortik aurrera ezer gutxi. Espabila gaitezen!

**Utzi ergelkeriak eta liskarrak. Lan egin, mesedez, teknifikazio zentroa ondo bukatzeko eta martxan jartzeko**



**LORETXU JATEAK**



Eusko Gudari, 18 Tel: 943 83 00 07

**LURDES**  
AKZELERAZ



Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

Iluskiandegia  
**MARIJO**



Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bajo  
Tel. 943 13 47 29  
**ORIO**

**Oreka energetikoa**  
Bachen loreak

bidurak, nahigabea, inoer-  
estresak, erretakalea, edonena?

utzi alde batera  
emozio negatiboak

Iman berrantolatzailea  
eta asuntza iradokitzailea

Itzi Fernandez Irujo  
Tel: 655726291  
www.orekaenergetikoa.com

**LEIHOLAN**

Aholkularitza teknikoa eta enkusketak

**Palatia**  
Agre industrialko  
Agote, 5  
20740 Zarate

**Enkusetan**  
San Francisco, 1  
20007 Zarate

**Alto Lantzerdi, 21**  
20910 Oñe  
Tel: 943 00 49 20

**TAILER MEKANIKOA**  
**MANTEROLA S/L**

REPARAZIOAK BARRIOAK

Santiago ezua, 18 postakutxa  
Tel. 943 830 743  
Fax. 943 134 634  
E-mail: [imanterola@euskalnet.net](mailto:imanterola@euskalnet.net)  
20 810 ORIO - GIPUZKOA

**TMM**

**AENOR**  
R  
180 9000

Estorako balbula  
AENOR kalitate ziurtatutakoa

**Orioko**  
Ogia

**ORIOGI**

OPIL OKINDEGIA  
Frontoi ondoan  
Tfnua: 943 83 01 89

**SOLOZABAL**  
autoeskola



Eusko Gudari, 30-1. ork  
telef: 943 83 68 12

**LUXARBE**  
igeltseritza

Igeltseritza orokorra,  
denetarik agiten dugu.

Presupuestoak eskatu  
konpromisorik gabe

Lan txukuna  
eta merkea

Tfnua: 943 59 59 00

**TANATORIO ZARAUZ**

EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

\* Donostia eta probintziako ospitaleetan  
\* Alderoko zerbitzuak  
\* Belatorio gelak  
\* Korciak, eskolak, tranbizioak...

Araba kalea, 35 Zarate

Tel: 943 80 48 17 / Fax: 943 80 48 48  
e-mail: [hazespil@tanatorio.net](mailto:hazespil@tanatorio.net)

**Goizeko**  
KAFETEGIA

943 83 28 55

Ami Iribarri, 33 behean, ORIO  
Autobus parada ondoan

**Zaragueta**  
Eskola **Orio**

telefonoa: 943 89 40 52  
e-mail: [012137aa@hezkuntza.net](mailto:012137aa@hezkuntza.net)

**uranga**  
autzerbitzua

**Aliprox**

Eusko Gudari kalea 13-15  
ORIO  
943 83 38 75

FISIOTERAPIA, Garbizi Arteak, eta Noroki Wierzen  
MUTRIZONETA, Garbizi Arteak

**sinergia** investigacion  
fisioterapia

Ibai ando, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 74 85 95

**Lizaso**  
dekorazioa



Eusko Gudari, 40  
Tel. 943 83 00 04 Tfnua 943 83 00 07

Sukalde eta bainuen erreformak

**XANTI MUJIKA**

**Igeltseritza**

699 46 76 21  
943 13 10 37

# Gaia emanda Orioko Gabonetako kontsumo ohiturak

## Gabonak, ospatzeko egunak

**Z**alantzarik gabe, Gabonak, egutegiko egunik kuttunenak dira niretzat. Umetatik oso oroitzapen atseginak gorde ditut. Errege egunean zain egotearen sentimendua, zetorrenaren aurreko ilusioa eta hunkidura. Eta, besteek baino gutxiago jasotzen genuen arren, niretzat ez zen frustagarria. Gabonetako magia gehiago zen besteek baino gutxiago izate hori baino, limurtzaileagoa.

Gabonak ospatu behar dira bai, eta sinesdun izanik, bereziki. Ospatu, bai, eta urteko gainontzeko egunetatik ezberdinu eta bereziago egin behar dira Gabonetako egunak. Musika, kabalgotak... Baina ez da inondik inora beharrezkoa handikeriaz, puztutako modu batean, gastatzea eta kontsumitzea. Ez dezagun Gabonetako magia eta xarma taloitegi bidez zapuztu.

Gehiegizko gastua ez da beharrezkoa, are gehiago, kontuan hartuta, festa honen protagonista nagusia bere etxetik kanpo jaio zela, gurasoen eta animalia bartzuen konpainian.

**ZIA**

Edozein jaiotza da poztasun eta alaitasunerako arrazoi etxe guztietan. Ospakizunerako arrazoi, eta hala

behar du bai, baina alerantzia hori, betiere, gehiegikerien, neurrigabetasunen eta festaren gaizkiulertze guztien gaintik jarritz.

Hori guztia guztiontzat jakina da, beraz, ez du balio entzungor egin eta beste aldera begiratzea.

Zorionak!

**Jokin Uranga**

Orioko Bidezko Merkataritza taldeko kidea

**Ez da inondik inora beharrezkoa handikeriaz, puztutako modu batean, gastatzea eta kontsumitzea. Ez dezagun gabonetako magia eta xarma taloitegi bidez zapuztu**

## Erosi opariak etxean

**E**gabonak elkartzeko egunak dira. Urtero familian biltzen gara mahai-inguruan, herritarrak kantuan kaleak alaitzen, Olentzeroren ongi etorria prestatzen, Erregeak agurtzen, umeen ilusioak pizten...

Gabonetan, ordea, dena lotzen da kontsumoarekin. Dena apaintzen dugu argiekin, zuhaitzekin, jaiotzekin, Olentzerorekin... Janaria da protagonista: turroiak, konpotak, mariskoa, angulak... baita edariak ere. Etxekoekin zein lagunekin postalak, loteriako dezimoak eta opariak partekatzen ditugu.

Kontua da gehiegizko kontsumoak edo kontsumo ez arduratsuak behar ez ditugun produktuak erostera eramaten gaituela. Zenbat aldiz erosten ditugu, segituan baztertu edota erabiltzen ez ditugun gauzak? Horrek eragina du, noski, gure ekonomian. Hobeto pentsatu behar genuke, ez bakarrik zer erosten dugun, baizik nola egiten dugun ere. Ingurugiroa kontuan hartu eta gehiegizko paketatzeak eta plastikokoak sahiestu.

Telebistak, zentro komertzialak eta internetek eroslearen ahalmen ekonomikoa

konkistatzen ari dira. Ez da harritzekoa, erosotasuna nagusi dugun gizarte honetan, telebistak pentsatseko lana ere arindu egiten digu: erakartzeko kolonia hori erosi, irudi zoragarria izateko beste makina hura...

Bestalde, teilatu baten azpian denetarik erosi daitekeen zentroak daude. Aparkatzeko arazorik ez dago han eta herri guztien arazoa bihurtu da. Horregatik, hiri nahiz herrietako komertzioek aukerak galtzen ari dira.

**BOGA**

Badago beste kontsumo ohitura, gehienbat gazteengan zabaldua dagoena: interneten bidez egiten dena. Badu bere arriskua modu horrek: ordaintzerakoan, erroren neurria, produktuaren materiala...

Guk, herri txiki honetako komertzioak, konfiantza, gertutasuna eta profesionaltasuna ditugu baliabide onak eta, neurri batean, kontsumoaren parte garen aldetik, Gabonetako magia kutsatu zaitezten eta kontsumo arduratsua praktikatuz festa alaiak pasa ditzazula opa dizugu.

**Marian Uranga**

Arkupe Elkarteko kidea

**Sega**

bataioak  
lehen jaunartzeak  
ezkontzak  
150 mahaikide  
aparkaleku pribatuak

menu bereziak  
ikontsultak

657-838-850

443-832-229

**Santoreka**

**karkara.com**

Alkohol, egurrek, harria, gero, zera, gero...

Fresko-fresko, zuretzat!

**PERTS ANAK**

A  
K  
O

M  
A  
Z

Materialio, PVC  
Venezianak  
Moterrak...

TEL: 943 329 01 MUGIKITZA 600 70 52 27



Bilboko San Frantzisko Xabierkoaren Parrokian grabatu zuten diskoa urriaren 7an eta 8an. AUSART RECORDS

# Danborjole txikia

## Kritika Danborjole txikia

ausArt records, musika klasikoa.  
14 abestiz osatua. 2011ko urrian.

Iristear dira Gabonak, senide eta lagunekin egoteko egunak, bapojan eta edan, tertulia une ederrak eta, ohitura dugun bezala, kantu zaharrak abestu edo abesten dutenei entzun. Abestiak entzuteko atal horri helduko diot, azkena entzun dudana diskoa Gabon kantaz osatutakoa izan baita, kolore biziko azala eta 14 kantuz osatutako bidean laguntzaile izango dugun danborjole txikiaren danborra erdian.

Abesti ezagun asko zerren-

da horretan, batzuk aipatze-kotan: *Oi, Betlehem, Arin-arin kristauak, Belenen sortu zaigun, Eguberri bozkario...* Zerrenda horretan badira bi abesti gaztelaniaz idatzitako izenburua dutenak, bata, *Navidad negra* eta, bestea, *Navidad sin pandereta*.

Flauta, akordeoia, kontrabaxua eta perkusioekin osatutako musika taldeak laguntzen die Susana Cerro Balmaseda sopranoari, Jatorki abesbatzari, eta Endika Moreno Lopez zuzendariari.

Ahotsa ederra du Susanak, tinbre polita, gozoa. Musika-rien moldaketak, berriz, bikainak, baina abesti batzuetan bien arteko uztarketa ez zait asko gustatu, ez didate beste Gabonetako kantuek

sortzen didaten zirrarak sortu; batez ere, hiru abestietan: *Oi, Betlehem, Birjiña maite* eta *Arin-arin kristauak. Gau ixila* abestian, ordea, asko gustatu zait Susanak jarrion dion sentimendua.

Abesbatzak bakarrik abesten dituen kantuetan grabazioaren kalitatea kaskarra goa dela nabari da; pena da, moldaketak oso onak baitira. Zuzenean egiten diren grabaketak arrisku hori badute, baina zuzenekoak sortzen duen magia ezin da grabatu eta hori da benetan musikak duen aberastasun handiena.

Tan, tarrapatatan, tarrapatatan... Danborjole txikia, handia egin zan. Tan, tan!

IMANOL URKIZU

**Ikasleak idazle**  
Nerea Erkizia

## Behobia-Donostia

**B**ehobia-Donostia lasterketa izan da orain dela gutxi. Jende askok hartu du parte, ia 20.000 pertsona izan ziren Behobia-ko irteeran. Gehienak euskaldunak ziren, baina beste herrialdeetatik ere etorri ziren: Herrialde Katalanetatik, Asturiastik, Frantziatik...

Orietarrak ere asko izan dira, egunkariak 100 bat aipatzen zituen, eta, tartean, nire aita zegoen.



Aurten bero handia izan da, korrikalari batzuek ez dute lasterketa bukatu,

askok leher eginda bukatu dute, eta beste batzuk espero zutena baino denbora kaskarragoarekin bukatu dute lasterketa.

Hala ere, korrikalari gehienak kontentu zeuden lasterketa bukatu zutelako eta jendeak asko animatu zituelako. Hurrengo urtera arte eta zorionak guztiei: aita, Jose Luis, Nerea, Igor, Ainhoa, Martin, Lars, Joxeba...

Anima zaitezte datorren urtean ere parte hartzera.

**Hurrengo urtera arte eta zorionak guztiei: aita, Jose Luis, Nerea, Igor, Ainhoa, Martin, Lars, Joxeba...**

**URANGA**  
burdindegia  
Opari, menaje eta erremintak  
Tel: uranga@euskalnet.net  
Telefon: 941 831236 Euzko Gudarai, 5

tel/fax: 943 89 00 69  
Euzko Gudarai, 4. 20100 ZARAUTZ  
**URBIDE**  
ITURGINTZA, BERDINTZA,  
GASA, BAINU ERAKUSKETA

**KOLON TXIKI**  
Herriko Erparantza, 4  
ORIO  
Tel. 943 83 00 44

**MIRANDA**  
Geltza eta bilbo, eskadara...  
betan dira auzo batak  
egunero dirak  
Urteaneta bide, 1 -660 42 82 700 ZARAUTZ

## » HANDIK ETA HEMENDIK



“Dokumental batzuetan jarri izan dut ahotsa, baina lehen aldia da halako lana zinemarako egin dudana. Gainera, normalean ez zait gustatzen saltsa guztietako perrexila izatea. Gauza gehiegitan nagoela

iruditzen zait, gogoz kontra. [...] Saltsa guztietan dabilenak, askotan sasi-lanak egiten ditu. Bokazioz norberari agintzen diona egitea da egoera egokiena, norbere *tempoen* bidez.”

**Benito Lertxundi**, Musikaria. Urola Kostako Hitza, 2011-12-09

## » OSPAKIZUNA



## Ongi etorri, Malen!

Aurreko KARKARAN ez zen bere izenik agertu 10 minutugatik eta osaba Iker korrika irten zen lanak bukatuta hura ezagutzera. Malen Gurrutxaga Lete duzue argazkikoa, munduratu eta 6 ordu eskasera. Iñaki eta Jone gurasoei sorpresa handia eman zien txikiak, uste baino lehenago jai baitzen. Aitona-amonak, bi osabak... guztiak lerdea dariola begira ditu Malen txikiak. Ez zaio goxotasunik faltako. Zorionak guztiei!

## » ZORIOXARRAK!

## Gure buruari

**K**ARKARAREN zenbaki honi darion kristau kutsuak eraginda edo, *mea culpa* esanez eman nahi ditugu hiru kolpe paparean.

Karkara.com-en batek ondo gogorarazi zigun bezala, ez gara fin ibili Benito Lertxundiren kontzertuaren berri ematerakoan. Ez genuen jaso bertan behera geratu zela eta ezta azkenean noiz emango zuen ere.

Bestalde, aldizkariaren banaketarekin ere arazoak izan ditugu: toki batzuetan ez zai-zue ailegatu eta, azken zenbakia iluntzean oso berandu iritsi zen etxe batzuetara.

Urte berrian txukunago arituko garen esperantzarekin, Urteberri on hala ere KARKARAZALE zareten guztioi.

**Nahikari**  
HALA BENDA

Argazkari - Gaiak, ES  
22100 - Orio  
Tel: 943 831 043  
www.nahikari.es

**Ramiro**  
argazkiak

610 637 663  
943 831 043

www.fotogramas.com

**AuPairExcellence**  
Enara Hehir-Alustiza

- Dosko izan-eremak
- Arreta pertsonal zabala
- Euskaraz, gaitheoraz eta ingelesez
- Irlandako egozaldiaren jantzipena

Tf.: 0035 306 312 67 42

info@aupairexcellence.com  
www.aupairexcellence.com

**GaleBask S.L.**  
Berrikuntzak  
Gremioen arteko koordinazioa

638 610 349  
Tel./Fax: 943 134 717  
galebask@hotmail.com

www.galebask.com  
Kale Nagusia, 2 -bajo  
20810 ORIO



Argazkia Peñanean egina da, Patxi Lertxundi eta Pantxiska Esoainen ezkontzaren urteurren batekoa. Erdian: gurasoak, anai banarekin; goian, zortzi seme-alaba, senar edo emaztearekin: Luis, Maria, Segundita, Jose Mari, Maria Jesus, Antofita, Joakin eta Angelita; behean: Benito, 3 lagun kantarirekin; Julen Lekuona, Xabier Lete eta Lurdes Iriondo. ARTXIBOA

# Errege eguneko oparia

## Oroimenaren kutxa

**E**l 942ko Errege egunean, haur bat jaio zen Orioko Goiko Kaleko etxe batean, Uxkuneean. Lertxunditarren familiako bederatzigarrena zen, Benito, etxe hartako azkena. Garai hartan ohitura zegoen, orain ez bezala, umea jaiotzen zenean, senide bat inguruko etxeetara joateko, jaiotzaren berri ematera. Errege egun goiz hartan, 9 urteko mutil koskorra, Luis, aitak aginduta, etxetik korrika abiatu eta izeba Maria Petrarenera joan zen. Honela esan

zion Luis mutikoak izebari: *Ume txikiya ekarriue etxera; izebak, berriz: Hara, erregeek umea e! pozik egongo zera, ezta?; eta Luisek: Pozik? naio nun piku batzuk ekarri bazituen!* Horraino, Errege egun hartan izeba-ilobek izan omen zuten elkarrizketa, ume haren ateraldi xelebrea, pasadizo esanguratsua. Gerra bukatu berritan, Goiko Kaleko bederatzia senideko familia hartan, orduko Orioko beste askotan bezala, nahiko lan izango zen eguneroko ogia mahairatzen, horrenbeste ahorentzat; eta nahiko lan, haurren Errege eguneko ilusioak asetzen ere. Baina piku gabe geratutako Luis

mutil koskorrak, urte batzuk geroago, erregali ederra egin zion anaia gazteari. Ordurako, Luis andregaiarekin zebilen. Ezkontza aurreratzea erabaki zuten, zertarako eta Benito soldaduskatik libratzeko, gurasoen ardura haren gain geratzen zela eta. Benitok bere bizitzan opari asko egin dizkigu. Laster beste bat: udaberriko diskoa plazaratu du kantu berriekin. Baina benetako erregaltoa orain 70 urteko Errege egunean egin ziguten Patxik eta Pantxikak, ume artista hura ekarri-ta. Zorionak, Benito, urte askoan.

[ IÑAKI ITURAIN ]

### » JAIO TAKOAK

- Nura Vega Pozo, Orion, abenduaren 15ean.
- Nerea Lisec Manzanaz Andrade, Orion, abenduaren 6an.
- Malen Gurrutxaga Lete, Aian, azaroaren 30ean.

### » EZKONDUTAKOAK

- Tomas Igor Beaumont eta Patricia Balerdi, Orion, abenduaren 17an.

### » HILDAKOAK

- Maria Jesus Brit Aierbe, Orion, abenduaren 14an, 52 urte.
- Antonio Larrarte Eguskiza, Aian, abenduaren 14an, 92 urte.
- Maite Irañeta Garcia, Orion, abenduaren 13an, 68 urte.
- Florentina Murgiondo Aierza, Orion, abenduaren 1ean, 85 urte.
- Jose Parada Gonzalez, Orion, abenduaren 30ean, 79 urte.
- Santiago Eguskiza Arregi, Aian, 83 urte, azaroaren 26an.

Eskela edo urteurrenko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora: **943 83 15 27**

**"JUAN LARRAZPU" ERAIKUNTZAK, S. L.**

◦ Baserietako igeltsaritza eta egurrezko estrukturatan adituak

◦ Etxeen berrikuntzak:

- fatxadak
- teilatuak
- sukaldeak
- bainu gelak...

**Tf: 665 718 966 (Jon Arruti)**

**bodegas ERRASTI, S. L.**

Iskualdeko baratzeak Zudugarai, Getariako txakolina, Tagares, ardo gurria nafarra Bodegas Galtur, Sotario de Laurgain Galtur eta Ardanegi, Arabar Errioko ardoak.

Furto-Sabai, 46 CRD • 943 83 03 91 / 83 86 52 • E-posta: bodegaserrasti@euzkadi.net



# “Oriotarrak oso zuhurak dira, ez dute behar baino gehiago gastatzen”

**Pablo Gomez Sanz**

Autotxokeetako nagusia

Aita Enkarterrietakoa eta soldadutza Aian egindakoa zuen Pablok. Amak, nafarra bera, oraindik autotxokeetan egiten du lan, fitxak saltzen. Aurretik zaldiko-maldiko batekin etortzen ziren, baina 1968tik autotxokeekin egiten digute bisita Gomez-Sanztarrak.

## IKER GURRUTXAGA

Abadiñon bizi dira autotxokeetako familiakoak. Urtero herriz herri ibiltzen dira beren barrakarekin, eta 43 urte daramatzate Oriora etorritz.

### Urte asko dira lehenengo aldiz etorri zirenetetik.

Bai, egia da. Pentsa, ni oraindik jaiotze gabe nengoen. Baina argazkiak ikusi ditut eta hemengoak ere badira tartean. Lehenengo alditan, plazan jarri zituzten autotxokeak, atera kontuak. Moilan ere jarri izan genituen. Baina 1982tik hona, beti toki berean egon gara.

### Oriotarren ohiturak asko aldatu al dira zuen begietara?

Ez, ez. Oriotarrak ez dira asko aldatu. Ni gogoratzen naiz, esaterako, gure aita hil zenean, 1987an, doluminak ematera

Orion etorri zela jende gehien gugana. Oriotarrak oso tratu onekoak dira, beste herri askotakoak baino tradizionalagoak edo kontserbadoreagoak. Mesfidatiak ere badira, goitik behera begiratze-ko ohitura asko dute. Horrez gain, oso zuhurak dira, ez dute dirua beste herri gehienetan bezain lasai gastatzen.

### Nola antzematen da hori?

Bada, ez gurean gutxiago gastatzen dutelako bakarrik. Garai batean, esaterako, probintzietako matrikulak zeudenean, Orion Bartzelona eta Madril aldeko matrikula asko ikusten zen. Bigarren esku-ko autoak izaten ziren gehienak, eta ez berriak erosteko dirurik ez zutelako, aurreztearen alde egiten zutelako baizik.

### Zuen negozioak nolako bilakaera izan du Orion?

Egia esan behar bada, duela hamar urte-

tik ez du ez gora ez behera egin. Baina ez Orion bakarrik. Lehen aisialdirako aukera gutxiago zegoen, jendeak ez zuen hainbeste bidaiatzen, eta gutxiago halako zubietan. Gaur egun, internet bidez eskaintza gehiago dago halakoetarako. Horrez gain, Urbil bezalako zentroak daude, eta horiek guri ere eragiten digute. Tabernak ere asko aldatu dira, gaur egun guztiak saiatzen dira jendea erakartzeko. Ez da kompetentzia igo dela, baizik eta aisialdirako aukera hazi egin dela. Baina guk badugu abantaila bat besteekiko, ez dago interneten salgai eta etorri ezean, ezin da beste modu batera lortu gure zerbitzua.

### “Oriotarrak oso tratu onekoak dira, beste herri askotakoak baino tradizionalagoak edo kontserbadoreagoak. Mesfidatiak ere badira”

“Guk badugu abantaila bat besteekiko, ez dago interneten salgai eta etorri ezean, ezin da beste modu batetara lortu gure zerbitzua”

### Harreman berezirik ba al duzue?

Beno, badaukagu halako harremana pertsona batzuekin. Orion badut lagun bat eta elkarri deitzeko ohitura dugu, Dorronsoro janari-dendakoekin ere badugu gertuko harremana, egunkaria ere bereziki ekarri izan digute... Baina harremana ezin da gehiegi estutu, urtean 15 herri pasatzen baititugu eta ezin duzu guztiakin tratua behar bezala zaindu. Ez da berdina bi aste egitea urtean bitan, edota urte osorako etortzea.

### Urtean bitan etortzen zarete, bizilagunekin arazorik?

Ez dut gogoan une txarren bat pasa izanarena. Gainera, gauzak asko aldatu dira. Lehen goizeko 6ak arte irauten genuen, musika, bozina, jendea... Orduan kexaren bat izaten genuen, baina beti modu apalean. Orain, gauza bestelakoa da. Ez gara hain berandura arte egoten, eta musika ez dugu lehen bezain altu edukitzen. Musikaren kontua ere zaintzen dugu, noski, gogaikarria izan ez dadin. Urtean bitan etortzen gara; gehiago etorriko bagina, ziurrenik, jendea gutaz aspertuko zen. Baina badirudi herritarrak gustura daduela gurekin, eta gu ere bai haiekin. Urte askotarako izan dadila.



KARKARA

## » AZOKA

**Iragarkietarako txokoa.** Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

**Saltzeko**

- Garaje itxia salgai Mendibeltz futbol zelaiaren azpian. 36.000 euro. Tf: 620 335 398/630 370 138.
- 15 metro koadroko garaje itxia salgai Anibarko portuan. Tf: 664 391 189.
- Orioko intxaurrek salgai, 4 kilo 10 eurotan. Tf: 943 834 498 31.
- Andatza auzoan 138 metro koadroko etxebizitza erreformatu berria salgai. 4 lo gela eta 2 bainugela. 237.400 euro. Tf: 620 335 398.

**Lan eskaintza**

- Emakume euskalduna behar dugu Aian urtebeteko haurra orduka zaintzeko. Esperientziaduna hobe. Tf: 615 730 167.

**Errentan**

- Etxebizitza berria errentan Aian. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, jangela eta garajea. Tf: 629 680 410.
- Apartamentua alokatzeko Orion urtarriletik uztaiera. Tf: 943 890 345/669 781 963.

**Erosteko**

- Orio erdialdean lokala erosiko nuke. Gehienez 30 metro koadrokoa. Lur azpikorik ez. Tf: 657 79 7355.

**Lan eskaera**

- Neska oriotarra etxeak edo ezkaratzak garbitzeko prest. Tf: 676 441 327.
- Gizonezko etorkina adinekoak zaintzeko eta beselako lanetarako prest. Esperientzia eta errefe-

rentziak. Tf: 680 234 095. (Abraham)

- Emakumea garbiketa lanak, plantxa orduka eta tabernan sukaldari laguntzaile lan egiteko prest. Tf: 678 108 775. (Carina)
- Neska haurrak edo adinekoak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest, barneko zein kanpoko bezala. Esperientzia eta erreferentziak. Tf: 680 788 599 edo 943 831 128.
- Neska etorkina adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Etxean bertan biziko litzateke. Tf: 627 621 629 (Claudia).
- Eskarmentuko neska euskalduna, arratsaldez, umeak zaintzeko prest. Udan eta Gabonetan ere bai. Tf: 679 852 341.

## » ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
23	02:50 eta 15:18	08:57 eta 21:17	
24	03:40 eta 16:07	09:48 eta 22:05	
25	04:27 eta 16:53	10:35 eta 22:50	
26	05:11 eta 17:37	11:21 eta 23:33	
27	05:54 eta 18:20	12:04 eta	
28	06:37 eta 19:02	00:16 eta 12:47	
29	07:19 eta 19:44	00:58 eta 13:30	
30	08:02 eta 20:29	01:42 eta 14:15	
31	08:48 eta 21:19	02:28 eta 15:02	
01	09:41 eta 22:17	03:20 eta 15:55	
02	10:43 eta 23:24	04:20 eta 16:56	
03	11:53 eta	05:27 eta 18:01	
04	00:33 eta 13:01	06:36 eta 19:03	
05	01:33 eta 13:58	07:36 eta 19:56	
06	02:22 eta 14:45	08:26 eta 20:41	

## » ZAINZAKO BOTIKAK

**ABENDUA**

- 23tik 26ra, Etxeberria.
  - 27an, Azaldegia.
  - 28an, Iriarte.
  - 29an, Mutiozabal.
  - 30ean, Larrañaga.
  - 31n, Lasa.
- URTARRILA**
- 1ean, Larrañaga.
  - 2tik 6ra, Lasa.
  - 7an eta 8an, Iriarte.
  - 9an, Etxeberria.
  - 10ean, Gallo.
  - 11n, Azaldegia.
  - 12an, Zulaika.
  - 13an, Iriarte.

- **Azaldegia:** Urdaneta kalea, 8. 943133183 Zarautz
- **Barrenetxea:** Gipuzkoa, 17. 943832398 Zarautz
- **Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943832970 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943133814 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza. 943830936 Orio
- **G. Artiano:** Zigordia kalea, 17. 943134019 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilarxoko Enea. 943132983 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943133994 Zarautz

## » TREN ORDUTEGIAK

**DONOSTIA-ZARAUTZ**

Donostia	5:47	6:17	6:47	7:17	7:47	8:17	8:47	9:17	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
<b>Aia-Orio</b>	<b>6:11</b>	<b>6:41</b>	<b>7:11</b>	<b>7:41</b>	<b>8:11</b>	<b>8:41</b>	<b>9:11</b>	<b>10:11</b>	<b>11:11</b>	<b>12:11</b>	<b>12:41</b>	<b>13:11</b>	<b>13:41</b>	<b>14:11</b>	<b>14:41</b>	<b>15:11</b>	<b>15:41</b>	<b>16:11</b>	<b>16:41</b>	<b>17:11</b>	<b>17:41</b>	<b>18:11</b>	<b>18:41</b>	<b>19:11</b>	<b>19:41</b>	<b>20:11</b>	<b>21:11</b>	<b>22:11</b>
Zarautz	6:19	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

**ZARAUTZ-DONOSTIA**

Zarautz	6:08	6:38	7:08	7:38	8:08	8:38	9:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:08	19:38	20:08	21:08	22:08
<b>Aia-Orio</b>	<b>6:15</b>	<b>6:45</b>	<b>7:15</b>	<b>7:45</b>	<b>8:15</b>	<b>8:45</b>	<b>9:15</b>	<b>10:15</b>	<b>11:15</b>	<b>12:15</b>	<b>12:45</b>	<b>13:15</b>	<b>13:45</b>	<b>14:15</b>	<b>14:45</b>	<b>15:15</b>	<b>15:45</b>	<b>16:15</b>	<b>16:45</b>	<b>17:15</b>	<b>17:45</b>	<b>18:15</b>	<b>18:45</b>	<b>19:15</b>	<b>19:45</b>	<b>20:15</b>	<b>21:15</b>	<b>22:15</b>
Donostia	6:39	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

Gipuzkoan garraiatzeko begira: [www.mugitu.com](http://www.mugitu.com). Grisez dauden orduetan trenak daude asteburuetan.

## » AUTOBUS ORDUTEGIAK

**LANEGUNETAN****DONOSTIA-ZARAUTZ**

Donostia	6:55	7:40	8:10	8:40	9:10	9:40	10:40	11:40	12:10	12:40	13:10	13:40	14:10	14:40	15:10	15:40	16:40	17:40	18:10	18:40	19:10	19:40	20:15	21:00	22:15
<b>Orio</b>	<b>7:25</b>	<b>8:15</b>	<b>8:45</b>	<b>9:15</b>	<b>9:45</b>	<b>10:15</b>	<b>11:15</b>	<b>12:15</b>	<b>12:45</b>	<b>13:15</b>	<b>13:45</b>	<b>14:15</b>	<b>14:45</b>	<b>15:15</b>	<b>15:45</b>	<b>16:15</b>	<b>17:15</b>	<b>18:15</b>	<b>18:45</b>	<b>19:15</b>	<b>19:45</b>	<b>20:15</b>	<b>20:50</b>	<b>21:35</b>	<b>22:50</b>
Zarautz	7:35	8:25	8:55	9:25	10:25	11:25	12:25	12:55	13:25	13:55	14:25	14:55	15:25	16:25	17:25	18:25	19:25	19:55	20:25	21:00	21:45	23:05			

**ZARAUTZ-DONOSTIA**

Zarautz	6:45	7:15	7:45	8:15	8:45	9:20	9:45	10:45	11:45	12:45	13:20	13:45	14:20	14:45	15:20	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:15			
<b>Orio</b>	<b>6:55</b>	<b>7:25</b>	<b>7:55</b>	<b>8:25</b>	<b>8:55</b>	<b>9:30</b>	<b>9:55</b>	<b>10:30</b>	<b>10:55</b>	<b>11:55</b>	<b>12:55</b>	<b>13:30</b>	<b>13:55</b>	<b>14:30</b>	<b>14:55</b>	<b>15:30</b>	<b>15:55</b>	<b>16:30</b>	<b>16:55</b>	<b>17:55</b>	<b>18:55</b>	<b>19:30</b>	<b>19:55</b>	<b>20:55</b>	<b>21:25</b>
Donostia	7:30	8:00	8:30	9:00	9:30	10:10	10:30	11:10	11:30	12:30	13:30	14:10	14:30	15:10	15:30	16:10	16:30	17:10	17:30	18:30	19:30	20:15	20:30	21:30	22:00

Lanegunetan, grisez dauden orduetako autobusak pasatzen dira Urbiletik.

**ASTEBURUETAN****DONOSTIA-ZARAUTZ**

Donostia	8:00	9:00	10:00	11:00	12:00	13:00	14:00	15:00	16:00	17:00	18:00	19:00	20:00	21:00	22:00	23:00
<b>Orio</b>	<b>8:35</b>	<b>9:35</b>	<b>10:35</b>	<b>11:35</b>	<b>12:35</b>	<b>13:35</b>	<b>14:35</b>	<b>15:35</b>	<b>16:35</b>	<b>17:35</b>	<b>18:35</b>	<b>19:35</b>	<b>20:35</b>	<b>21:35</b>	<b>22:35</b>	<b>23:05</b>
Zarautz	8:45	8:45	9:45	10:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45	23:15	

**ZARAUTZ-DONOSTIA**

Zarautz	6:45	7:45	8:45	9:45	10:45	11:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45
<b>Orio</b>	<b>6:55</b>	<b>7:55</b>	<b>8:55</b>	<b>9:55</b>	<b>10:55</b>	<b>11:55</b>	<b>12:55</b>	<b>13:55</b>	<b>14:55</b>	<b>15:55</b>	<b>16:55</b>	<b>17:55</b>	<b>18:55</b>	<b>19:55</b>	<b>20:55</b>	<b>21:55</b>
Donostia	7:30	8:40	9:40	10:40	11:40	12:40	13:40	14:40	15:40	16:40	17:40	18:40	19:40	20:40	21:40	22:40

Asteburuetan, autobus guztiak pasatzen dira Urbiletik. Grisez dauden orduak larunbatetako (lanegunak) zerbitzuei bakarrik dagozkie.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek darama. Zerbitzuei buruzko informazioa lortzeko zenbait bide daude: [www.landabus.com](http://www.landabus.com), Tf. 943 240114 sms-a 5280 zenbakira

# Aia

## Erromeria

■ Urtarrilaren 6an, Errege egunean, erromeria Kupela taldearekin, 18:30etik 21:30era, Andatza auzoko Aristerrazuko plazan.

## Silo-bolak

■ Urtarrilaren 10ean. Zerbitzuaren inguruko informazioa jasotzeko Urkomera deitu. 943 816 500. Bestela zerbitzuaren arduradunarekin hitz egin 660 049 751 (Igor).

## Podologoa

■ Urtarrilaren 14an. Ordua hartzeko, deitu 943 13 11 44 telefonora.

## Kooperatiba

■ Gabon jaietako ordutegia: abenduak 24, Gabon eguna, 08:00etatik 14:00etara, arratsaldez itxita; abenduak 25, Eguberri eguna, itxita; abenduak 31, Urte Zahar eguna, 08:00etatik 14:00etara, arratsaldez itxita; urtarrilak 1, Urteberri eguna, itxita; urtarrilak 6 Errege eguna, itxita. Oharra: arrazoi ekonomikoak, jai egunetako salmentak eta lanegileen kopurua kontuan har-

tuta, Lur-Alkartasuna kooperatiba 2012. urtean igandetan eta jai egunetan itxita izango da.

# Orio

## Kabalgata

■ Abenduaren 23an, izen ematea: urtarrilaren 5eko kabalgatan Errege Magoei ongi etorria egiteko panderoak, danborrak eta barririk joko dituzten 6 urtetik gorakoentzat; eta sokari eutsiz edo suziak eramanez parte hartu nahi duten 18 urtetik gorako herritarrentzat. 19:00etan, Ikastolako pergolan.  
■ Abenduaren 26an, Errege kabalgatarakoko entsegua. 19:00etan, Ikastolako pergolan.

## Tonbola

■ Abenduaren 24an, elkartasun tonbola; jasotako dirua ikasketa bidaiarako eta Ruandako eskola baterako izango da. Eguerdian, Herriko Plazan.

## Lehiaketa

■ Abenduaren 30ean, jaiotza, kantu eta jantzi lehia-

keta. Talai Mendi elkarteak animatu nahi ditu abenduaren 24an, jaiotzarekin kalean ibiltzen diren taldeak lehiaketan parte hartzera. 17:00etan, Ikastolako pergolan.

## Kultur etxea

■ Abenduaren 26tik urtarrilaren 5era bitartean -biak barne-, Kultur Etxea goizez bakarrik egongo da irekita; 09:00etatik 13:00etara.

## Egin dezagun bidea

■ Abenduaren 24an, mariskadaren zozketa. Plazan.  
■ Abenduaren 31n, bideo emanaldia eta giza-katea. 20:00etan, Herriko Plazatik abiatuta.  
■ Urtarrilaren 7an, Bilbon egingo den manifestaziora joateko autobuserako izena ematea, Kolon Txiki eta Loretxu tabernetan.

## Trafikoa

■ Abenduaren 24an, Olentzero eta Mari Domingi datozela eta aldatetak izango dira zirkulazioan: Kaian norabidea aldatuko da; ibilgailuak kaia-tik barrena sartuko dira eta debekatua izango dute bide hori erabiltzea herritik ateratzeko; nahitaez Txanka-hon-

dartzako bidea erabili behar da. 15:00etatik aurrera, eta Olentzero eta Mari Domingi joan arte.

## Bilerak

■ Urtarrilaren 11n, Zaharren Babeslekuko urteko batzarra. Lehenengo deialdia 16:30ean, bileraren hasiera 17:00etan, Kultur Etxean.  
■ Urtarrilaren 12an, Topagune Berdearen bilera. 19:00etan, Kultur Etxean.

## KZ Gunea

■ Urtarrilaren 2tik 13ra, internet KZ ikastaroa, 11:00etatik 13:00etara, Kultur Etxean.  
■ Urtarrilaren 3an eta 12an, IT txartela ateratzeko azterketa, 09:00etan, KZ gunean, Kultur Etxean.

## Futbola

■ Urtarrilaren 7an, afizionatuen gorengo mailan, Orio-Aretxabaleta, Mendibeltz zelaian.  
■ Urtarrilaren 7an, kadeteen Emakumezkoen senior mailan, Orio-Beasain, Mendibeltz zelaian.  
■ Urtarrilaren 7an, kadeteen ohorezko mailan mailan, Anaitasuna-Orio, Azkoitian, San Juan zelaian.



**Sagasti**  
LEIHOAK

943 516 877  
943 517 101  
Luis Sagasti  
Aristerraza, 14  
48940 Sagasti, Bizkaia



gizarte  
**kutxa**



**mauka**

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL: 943.572083  
FAX: 943.571190  
lasenja@hotmail.es

INES ASEÑO  
IRAI ONDO 13  
70110 ORIO



Edificio Axiri, 16  
tel. 943 85 21 10  
**AZKOITIA**

Santiago auzoa, 12  
tel. 943 14 34 43  
**ZUMAIA**

Gesalaga kalea, 18  
tel. 943 14 82 41  
**ZESTOA**

Abendaño, 2  
tel. 943 13 50 16  
**ZARAUZ**



[www.biyona.net](http://www.biyona.net)

**iturgintza** aire girotua  
**igeltseritza** etxeko altzariak  
**arotzeria** sukaldeko altzariak  
**gremioen koordinazioa** bainugelak-zeramika  
gasa-berogailuak